

Datorrena

Berriz min hau

IRATXE URIZAR > 3

KUBA: Ebolaren aurkako borroka
Afrikan bertan abiatu du Kubako
«potentzia medikoak» > 4

2014ko azaroaren 1a | VIII. urtea • 389. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HARRERA DUINTASUNERA

ASKATASUNAREKIN AMETS EGITEN DU
ERREPRESALIATUAK. EGUNSENTIAN, BAINA,
HEGAN EGITEA ERE AHAZTU DUELA
KONTURATUKO DA. HEGOAK ASTINTZEN
LAGUNDU NAHI DIE HARRERAK, DUINTASUNEZ
AIRERA DAITEZEN > 12 Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



**Kubako «Potentzia medikoa»
Ebolaren aurka Afrikan** 04

Dolua, Ayacuchon 07

**Eurite iragarlea asmatu dute
Hego Amerikan** 08

**Duintasunaren bidean lagun
izan nahi du Harrerak** 12



**Nekazaritza ekologikoa eta
jantoki kolektiboak** 19

E.lkarrizketa: Aurore Martin 22

**Teknologiaren arriskuak
haurrengan** 26

Infraganti: Alatzne Etxaburu 28



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Berriz min hau
 09 **Xabier Mikel Errekondo:** Zulo beltzak
 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Etxabeak
 11 **Mikel Zubimendi:** Orduko Herri Batasuna eta gaurko Podemos
 18 **Amaia Ballesteros**
 20 **Gorka Zozaia:** Arimen gaueko udatxoa
 21 **Kattalin Miner:** Injustiziaren postontzi zorionekoak
 25 **Maidar Iantzi:** Adur erreketan igeri
 31 **Iratxe Esnaola:** Nomofobia zara?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZA
GIBIZKUNTZA ERKUNTZA

{ datorrena } Iratxe Urizar

Berriz min hau

Konpondu gabeko arazoei behin eta berriro bueltatzeko joera dute. Tortura, beste behin ere, agenda politikoan kokatu da bete-betean, Espainiar gobernuak kondenatzen duten Estrasburgoko bi epaien eskutik, Oihan Ataun eta Bea Etxeberria gazteek aurkeztutako tortura salaketak ikertu ez zituztela leporatuz. Bi kasu hauek ez dira horien urrun gelditzen denboran, eta oihartzunak oraindik ere badiraute; Ataun oraindik ez da epaitua izan, eta ondo gogoratzen dugu Bea Etxeberriaren inkomunikaturik eman zituen egunetako testigantza, orain hiru urteko martxoaren hasierako egun horietan, kolore guztietako instituzio eta medioek emakumeen aurkako indarkeria salatzen zuten bitartean... euskal gazte honek pairatutakoaz entzungor.

Bi epai hauek jada emanak ziren beste hiruri gehitu behar dizkiegu. Denak Entzutegi Nazionalako epaileek aurrea eramandako sumarioei dagozkienak eta bere garaian gazte hauek kontatzen zituzten tormentuei inolako egiazkotasunik emateko arrazoirik ikusi ez zutenak, Baltasar Garzon da horietako bat. Duela gutxi Jot Down aldizkarian eskaintzen zuen elkarrizketa bat epaile honek eta bertan, jakinaren gainean egon arren ezer egin ez zuen hainbat irregularitasun onartzen zituen gorritu gabe. Amedo eta Dominguez direla ziurrenik hatz-marka eman ez zuten espainiar Estatuko preso bakarrak esaterako, edota gatazka konponbide prozesu batean, egia, justizia eta erreparazioak duten garrantzia. Konplexurik gabe. Munduaren bestaldera eramane dion diskurtsoa erabiliz, Argentina, Txile bezalako herrialdeetara, non hobe zuen ikasi irakatsi baino.

Duela gutxi eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidatuta, Elisabeth Lira ikerlari txiletarrarekin Donostian solasaldia izateko aukera izan genuen. Lira, Tortura eta Espetxe Politikorako Nazio Komisioko (2003-2005 eta 2010-2011) kide izan zen, Valech Komisia izenagatik ezagunagoa egin zena. Errekonozimenduaren bidean instituzioen inplikazioak zer garrantzia duen gogorarazi zigun, testigantzak jaso, dokumentazioa osatu eta erantzukizunak argitzeko bide horretan. Lan horretan sentsibiltate ezberdinak barnebiltzean (ezin ahaztu dezakegu tortura eta kartzelaldia pairatu zutenen nortasuna ezartzeko sortu zen Valech Komisia bertan parte hartu zuen gotzainari zor diola izena) sentsibiltate ideologikoa dutenen aurrean proiektuak autoritate osoa izango du. Horren aldean eta

gurera bueltatuz, bere burua giza eskubideen abangoardian kokatzen den Estatu espainiarrak 1970eko hamarkadaren bukaeran Komisia batek bildutako dokumentazioa publiko egiteari ezetz esan dio. Bilduma horretan, Euskal Herrian garai horretan tratatu txarrak pairatu zituztenen inguruko informazioa agertzen da. Amaier talde politikoak birritan eskatu eta gobernuak birritan ukatu dio.

Horrekin guztiarekin, hala ere, Liraren hausnarketa batekin geratuko naiz: estatuko biolentzia pairatu dutenen identitatearen bilketa oso garrantzitsua da egia, justizia, erreparazio eta berriro errepikatuko ez denaren bermearen bidean eta, horretarako, Egi Batzordeek beraien funtzioa ondo bete dezakete. Hala ere, bada arazo handi bat: egingarriak izateko, garai zehatz bati atxikituak behar dute izan. Denbora muga bat ezartzen da baina tortura ez da bat-batean agertzen den praktika bat. Txilen ere tortura ez zen diktadura garaian asmatu, lehenago ere erabilia zen. Bere praktika modu masiboan hedatu eta instituzionalizatzean izan zen gizartea mugitu zela, hori

Tortura gizarte baten demokrazia neurtzeko modua izan daiteke ere bai.

Eta hori aldatu arte, ezin ziurta daiteke berriro ez errepikatzearen berme hori

ondo ez zegoela salatuz. Tortura, gizarte baten demokrazia neurtzeko modua izan daiteke ere bai; handik gatoz, hemen gaude. Hori gara, hona hemen horren ondorioa. Eta hori aldatu arte, ezin ziurta daiteke berriro ez errepikatzearen berme hori.

Komisioaren lana funtsezkoa izan zen Txileko gizarteak torturaren existentzia errekonozitzearen bidean. Komisia hauen beste helburuetako bat inpunitatearekin bukatzea izan beharko litzateke: egindakoaz erantzun beharko duela ziur bada, ez du egingo.

Argentinan, ministro ohi bat, polizi buru bat eta tortura zentroko beste erantzule batzuk 13 urteko espetxe zigortetik biziarteko espetxe zigortetara kondenatu dituzte. Fase bat itxiz, gertatutakoa argituz. Gurean, oraindik errekonozimenduaren bidean, behin eta berriro mahaigaineratu beharreko gaia izaten jarraitzen du. Beak epaia bere urrundutako ziegan ezagutu du, eta inputaturik ez dela egon jakitearen minarekin. Min hau. Berriz min hau. •

{ txostena } Jose Angel Oria

KUBA

Ebolaren aurkako borroka, AEBek uharteari ezarritako blokeoa atzean uzteko tresnarik eraginkorrena

461

«Kubak, 11 milioi biztanle inguru besterik ez dituen herrialdeak, 165 osasun langile bidali ditu, eta beste 300 bidaltzea aurreikusi du», esan zuen John Kerry AEBetako Estatu idazkariak. Habanaren arabera, Kubak 461 osasun langile bidaliko ditu Sierra Leonara, Gineara eta Liberiara.

66

Kubako 50.000 mediku inguru ari dira lanean munduko 66 herrialdetan, bertako osasun sistemak indartu nahian, batez ere lehen mailako arretan, kasu askotan bertara iristea oso zaila den komunitateetan.

Ehunka osasun langile joan dira Kubatik Afrikako mende baldera ebolari aurre egitera. Beste horrenbeste datozen asteetan joango dira. Karibeko herrialde txikiak egin du beste inork egiten ez duena, nazioarteko erakundeek onartu duten moduan. «Potentzia medikoa» deitu dio BBC kate britainiarrak herrialde sozialistari, eta azken 50 urteotan egin duen lanaren emaitzak oso onak direla nabarmendu du, arloko adierazle gehienek esaten baitute uharteko osasun zerbitzua herrialde garatuenetan dutenaren parekoa dela.

Ebolari Afrikan bertan aurre egiteko Kubako agintariek hartu zuten erabakiak, uharteko milaka osasun langilek bere egin zutenak, sekulako oihartzuna izan du mundu osoko hedabideetan. Kubatarren ahalegina ia bazter guztietan goraipatu dute, baita AEBetan ere, hau da, Karibeko herrialdearen aurkako blokeo ulertezin eta itogarriari eusten dion potentzian. «Kubak, 11 milioi biztanle inguru besterik ez dituen herrialdeak, 165 osasun langile bidali ditu, eta beste 300 bidaltzea aurreikusi du», esan zuen John Kerry AEBetako Estatu idazkariak.

ERABAKIAREN BALIO POLITIKOA

Kubak ebolaren aurka egin duen urratsak balio politiko handia duela ulertu dute berehala aldekoek zein aurkakoek. Hedabide batzuek urrats hori goraipatzen dute, Kubak azken hamarkadotan osasun arloan egin duen lan guztiaren testuinguruan ipinita. Besteek, aldiz, «erregimenaren propaganda eta negoziua» besterik ez dute ikusten, eta kubatar medikuen eta erizainen lanaren garrantzia gutxiesten saiatu dira. Orrialdeotan makina bat komunikabidek argitaratutako iritziak eta informazioak laburbiltzen saiatu gara.

Mexikoko «La Jornada» egunkari ezkertiarrek nabarmendu du Kubak ALBA Amerikarako Bolibartar Alternatibako herrialdeen arteko koordinazioa bultzatu duela ebola eremu haieta-

ra iritsi ez dadin eta, esanguratsuagoa dena, Venezuelak, Ekuadorrek, Boliviak, Nikaraguak, Haitik, Grenadak, Saint Vincent eta Grenadinek, Dominikak, Antigua eta Barbudak eta Saint Kitts eta Nevisak, Kubarekin batera, izurritearen sorlekura laguntzera joatea erabaki dutela, prebentzio ekintzarik onena delakoan. Kazetak alderatzen ditu

herrialde aberatsenak ALBAkoekin. Lehenengoek baliabide ekonomikoak eskaintzeko ere arazoak dituzte eta ebola beren lurraldeetara iritsi ez dadin neurriak hartzen dituzte, besterik gabe. Bigarrenak arazoa errotik konpontzeko urratsa egin dute. «Alderaketak azken hamarkadotan Latinoamerikan eta Karibeko herrietan izan diren aldake-

tak hobeto ulertzen laguntzen du. Washingtonen sostengua betidanik izan duten oligarkia suntsikor eta zapaltzaileen mendean egotetik, bertako herriarren osasun beharrei jaramonik ez egitetik, munduko osasun arloan zeregin garrantzitsua betetzera pasa dira ALBAko herrialdeak», Mexikoko egunkariak egin duen irakurketaren arabera.

BLOKEOARI EGURRA

Blokeoari ere egurra ematen diote «La Jornada» hedabidekoek. Gogorarazten dute blokeoaren eraginez zientzia trukeak, tresneria berrien eta botiken erosketak eta beste herrialdeekin egin beharreko merkatariza zaildu egiten direla. «Blokeoak ez du bakarrik Kuba kaltetzen. Baita beste baldintza batzuetan egonez gero uhartean negoziak egiten ariko liratekeen AEBetako konpainiak ere. Eta kalteak dituzte, halaber, beste herrialdeetako enpresek, uharteko erakundeekin batera zerbait eginez gero, Washingtingo Gobernuaren mendeku neurrien biktima izango dira eta».

Obama presidenteak berak esan du ebolari aurre egiteko herrialde guztiek bat egin behar dutela. Mexikoko kazeta bat dator iritzi horrekin: «Ebola izurriteari aurre egiteko nazioarteko kooperazioa indartu behar izatea aukera ezin hobea da Barack Obamaren Gobernuak, behingoz, Kubaren aurkako blokeo eta eraso politiken inguruan aldaketa esanguratsu bat egin dezan eta, anakronikoa izateaz gain, inmorala, legez kontrakoa, injustua eta mundu guztiarentzat kaltegarria den blokeoari amaiera eman diezaion».

«Ebolaren aurkako kubatar medikuak: heroiak, ez martiriak» izenburupean, *cubasi.cu* webgunean Milena Reciok Afrikara osasun langileak bidaltzeak



Haur bat Nairobiko aireportura iritsi berritan osasun langile batek lagunduta.
Tony KARUMBA | AFP

Alboko argazkian, Kubako medikuak Freetowneko aireportuan Kubatik eramandako materiala antolatzen.
Florian PLAUCHEUR | AFP

Mendebaldeko hedabide handienetan izan duen oihartzuna nabarmendu berri du. «Azpimarratzekoa da “The Washington Post” egunkariko Adam Taylor zutabegileak esandakoa, bere iritziz, 11 milioi biztanle besterik ez dituen uharte txikia gaixotasunak kaltetutako Afrikako eremu horren zerbitzu medikoen hornitzaile erabakigarri bihurtu baita», zioen Recio.

OSASUN SISTEMA PUBLIKOA

Taylorrek eranstean zuten Kuba herrialde aberatsa ez den arren, osasun zerbitzuak esportatzeko gauza dela osasun sistema publiko eta unibertsalari eusten diolako, «Errepublikako Konstituzioak jasotzen duen moduan».

Recio bestea gai korapilatsu bat ere aipatzen du *cubasi.cu* webgunean, Kubako Estatuak langile horien lanaren truke jasotzen duen diruari dagokiona: «Kubatar 50.000 mediku inguru ari dira lanean munduko 66 herrialdetan, bertako osasun sistemak indartu nahian, batez ere lehen mailako arretan, kasu askotan bertara iristea oso zaila den komunitateetan. Elkartasun tradizio horrek hamarkada asko ditu dagoeneko, baina orain urte gutxi batzuk arte horrek ez dio irabazi ekonomikorik ekarri herrialdeari. Gaur egun, misio horietako batzuk, gero eta gehiago, gobernuen arteko kontratuen bidez antolatzen dira eta horrek irabaziak ekartzen dizkie Kubako Estatuari zein misio horietan esku hartzen duten osasun langileei».

Oso irakurketa ezberdina egin dute Habanako Gobernuaren aurkako hedabideek. Esaterako, *CubaNet.org* webguneak Daniel Guevara Santiagoko San Luis erietxeko medikuaren adierazpenak jaso ditu. Afrikan gaixotzen diren osasun langileak uhartera berriz ez ekartzeko neurria ulertzeko dela esan ondoren, kutsatutako lagunen eta etxekoan sufrimendua nabarmen du, diru kontuekin hasi aurretik: «Gainerako medikuei entzundakoaren arabera, nire erietxekoei 5.000 dolar ordainduko dizkiete hiru hilabete-



an behin. Tankerako kopurua kobratzen dute Brasilen Medikuei gehiago egitasmoan esku hartzen dutenek, Brasileko Gobernuak Kubakoari mediku bakoitzeko hilean 4.000 dolar ordaintzen diotenean».

«KUBA DIKTADURA BAT DA»

Tankerako jarrerarekin aztertu du gaia *elnuevoherald.com* webguneak. Habanako agintarien aurkako hedabide horrek Aileen Maria Marty kubatar jatorriko estatubatuar medikuaren hitzak jaso ditu: «Hau ez da kontu politiko bat, kontu medikoa baizik. Badakigu propaganda egiteko erabiltzen dituela medikuak Kubak baina, aldi berean, mediku horiek sekulako lan humanitarioa egiten dute makina bat herrialdetan».

Aileen Maria Martyren arabera, Kubak gaitza uhartera ez iristea nahi du «eta, diktadura bat denez, muturreko neurriak hartzeko moduan dago. Gaiari ikuspuntu mediko soil batetik errepatatuz gero, neurri horiek

zentzudunak dira, baina ikuspuntu humano batetik begiratu ezin da gauza bera esan».

Bestalde, hedabide berean idatzi dute «baieztatu gabeko informazioen arabera» Kubako medikuek soldata altua izango dutela eta, gainera, OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) kontratatutako aseguruak izango dituztela eta, zerbait gertatuz gero, onuraduna Kubako Estatu izango litzatekeela.

OMEkin lan asko egin duen Martyk zuzentzen die «berria» webguneakoei, bere kasuan onuradun bakarra bere familia zela argituz.

Cubainformacion TV hedabideak ere aipatu du Kubak bere medikuen lanaren truke jasotzen duten dirua. «Kubako medikuak 66 herrialdetan ari dira lanean, baina horietako 26k baino ez dituzte ordaintzen zerbitzu horiek, eta beste kasu guztietan, herrialde pobreenetan, Habanak bere gain hartzen ditu gastu guztiak. Bestalde, atzerri horrenbeste mediku bidalita

ere, bere lurralde propioan sendagile gehien dituzten herrialdeen sailkapenean lehen postuan jarraitzen du uharteak».

Kubak bidalitako osasun langileen gaitasunari buruzko eztabaida ere sortu da. “The Wall Street Journal” AEBetako egunkariak idatzi du Sierra Leonara joan aurretik Kuban bertan egindako prestakuntza ikastaroan oso kezkatuta zebilela OMEk bidalitako aditua, kubatarrek elkar ukitzen ikusten baitzituen eten gabe, bostekoa ematen eta sentimenduak kontaktatu fisikoen bitartez adierazten, ebola kontaktuen bidez kutsatzen dela kontuan hartu gabe.

PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNA

Kubako Martinoticias hedabideak Pedro Kouri Medikuntza Tropikaleko Institutuko zuzendari Jorge Perez Avilaarekin hitz egin du gaia aztertzeko. Perezek dio osasun langileek prestakuntza egokia jaso dutela, OMEko eta MGM (Mugarik Ga-

1.a

«Atzerri horrenbeste mediku bidalita ere, bere lurralde propioan sendagile gehien dituzten herrialdeen sailkapenean lehen postuan jarraitzen du uharteak», Cubainformacion TV hedabideak esan duenez.

beko Medikuak) erakundeko adituen eta uharteko medikuen laguntzarekin. Ebolaren aurka-ko jantzi bereziak nola jarri eta nola erantzi irakatsi zaie langileei, horri buruzko bideoak eskainita. Gainera, Afrikara iristean, beste hamabost eguneko ikastaro bat egiten dute.

Floridako *elnuevoherald.com* webgunearen arabera, CNN AEBetako telebista katea izan da mediku horien entrenamendua egiten den lekua bisitatzeko aukera izan duen nazioarteko hedabide bakarra, eta hori bera ere esanguratsua da.

Osmany Rodriguez erizaina Habanako institutu batean eskaintako prestakuntza ikastaroan zegoen CNNkoak bertaratu zirenean. «Beldurra izatea ez da arazoa, gaixotasun honen aurka gehiago babestera eramango gaitu eta. Egutero egin beharko ditugun lan horietan erabat seguru gaudela pentsatzea arrikutsuagoa da beldurtuta egotea baino», adierazi zion Venezuelan eta Zimbabwen ere lanean aritutakoa den Rodriguezek Patrick Oppmann CNN kateko kazetariari.

AEBetako telebista horrek Jose Luis Di Fabio Osasunaren Panamerikar Erakundeko adituaren hitzak ere jaso ditu: «Kubak eskaini duen jarraibideak Afrikako mendebaldera lanera joateko beldurra kentzen laguntzea espero dugu. Jendeak horrenbesteko beldurrik ez bala, agian, Afrikako herritarrei laguntza emateko erronka errazago onartuko luke».

«FIDEL CASTROK, ARRAZOI OSOA»

“The New York Times” egunkariak bat egin du Fidel Castro Kubako presidente ohiarekin eta hori ere ebolaren aurkako borroka eragindako efektu harri-garrien artean kokatu behar da. «“Granma” Kubako Gobernuaren egunkarian argitara eman duen zutabe batean, Fidel Castrok dio AEBek eta Kubak albo batera utzi behar dituztela beren arteko liskarrak, tarte baterako besterik ez bada ere, mundu osoa mehatxatzen duen fenomenoari aurre egiteko. Arrazoi osoa dauka», irakur zite-

AEBetako presidente Barack Obama Nina Pham erizaina besarkatzen. Phamek Ebola gainditu du.
Paul LOEB | AFP

Behoko argazkian erizain bat Ebola gainditu duen emakume talde bati azalpenak ematen Monrobian.
Zoom DOSSO | AFP



79,4

Kubak atzerrira osasun langile asko bidaltzen baditu ere, uhartean bertan eskaintzen duen zerbitzua munduko onenetakoa da: haurren heriotza tasa AEBetakoa baino txikiagoa da, eta bizi itxaropena (79,4 urtekoa) Latinoamerikako altuena da, Europako herrialde askotakoa baino hobea.

keen New Yorkeko egunkariko editorial batean.

«Kuba uharte pobre bat da eta isolatu samarra dago. Ebola kezkatzeko moduko abiaduran hedatzen ari den Afrikako herrialdeetatik 7.000 kilometrora dago. Hala ere, izurritearen erdira ehunka mediku eta erizain bidaltzeko konpromisoaren eraginez, birusaren hedapena gerrarazteko lanean ari diren herrialdeen artean bera izan daiteke azkenean zeregin garrantzitsue-na izango duena. Kubak egin duen ekarpen ikaragarria, zantzarik gabe, munduan duen estatusa hobetzeko ahaleginen artean ipini behar da. Hala ere, txalotu eta imitatu egin behar da bere ahalegina», dio New Yorkeko kazetako editorialgileak.

Ebolaren aurkako borrokan ehunka osasun langile kutsatu direla gogorarazi ondoren, «Afrikako mendebaldeko medikuek nazioarteko laguntza behar» dutela nabarmentzen du.

NORMALIZAZIOAREN ONURAK

«Tamalez, ebolaren aurkako borrokan baliabide finantzario gehien jarri duen Washingtonek ez du harreman diplomatikorik Habanarekin. Tamalgarria da, Kubak egin beharko duelako borroka horretako lanik erabakigarriena. Kasu honetan, etsaitasunak heriotza eragin dezake, bi hiriburuek ez baitute beren ahaleginak koordinatuko dituen tresna egokirik. Obamaren administrazioak ulertu behar du Kubarekiko harremanak nor-

maltzeak kalte baino onura gehiago eragiten dituela».

“The New York Times” egunkariak adibide baten bidez azaltzen ditu estatubatuarren eta kubatarren arteko balizko kooperazioaren onurak. Gogora dakar aseguru konpainia gehienek oso garbi esan dutela ebolak kutsatutako pazienteak beren herrialdeetara eramateko prest ez daudela, eta modu seguruan eramateko propio prestatutako hegazkinak behar direla. Editorial egilearen iritziz, zentzuzkoa eta «erruki kontua» da Pentagonoak laguntzea kubatarrei: osasun langileren bat kutsatuz gero, Liberiako hiriburu Monrovia eraikitako erietxeko zerbitzuak eta gaixoen ebakua-ziorako hegazkinak eskainita.



Guillermina eta Herlinda Huaman ahizpak desagertuta zegoen aitaren gorpuarekin. Max Cabello| AFP

IKUSMIRA

DOLUA EGITEN HASI DIRA AYACUCHON

«Desagertuak ez dira deus, ez daude ez hilik, ezta bizirik ere», esan ohi zuen Jorge Rafael Videla diktadore argentinarrak. Saminari, erantzunik gabeko hamaika galderei, beldurrari eta, askotan, ingurukoen ulertezintasunari aurre egin behar diete desagertuen senideek. Nola? Noiz? Zergatik? Hilik egongo ote da? Nola hilko zuten? Sufrituko zuen? Astelehenean, Perun, gatazka armatuaren testuinguruan, 1984 eta 1991 bitartean desagertutako 65 nekazarien gorpuak beraien familiei entregatu zizkieten Huamanga herrian, Ayacucho departamenduan. Sendero Luminoso eta MRTA gerrilen eta Armadaren arteko gatazka gogor jo zuen Ayacucho, Sendero Luminosok sostengu zabala zuenez bertan, eta, ondorioz, operazio militarren gune garrantzitsu bihurtu zen. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen arabera, Peruk pairatu zuen gatazka 70.000 hildako eragin zituen; horietatik 15.000 desagertuta daude. Urte askoren bueltan, Huamangako herritarrek beraien senideei merezi zuten agurra eman ahal izan zieten.

Ainara LERTXUNDI

EURITEEN IRAGARLEA

Hego Amerikan ohikoak diren euriteen eraginak aurreikusteko tresna sortu dute

 **KLIMA** / Iraia OIARZABAL MUJKA

«El Niño» fenomenoarekin lotuta batez ere, eurite bortitzak izan ohi dira Hego Amerikan, Bolivia eta Argentinan, esaterako. Horrek uholde larriak eragin izan ditu, atzetik dakartzan kalte guztiekin. Alemaniar zientzialari talde batek euri jasa horien ehuneko handi bat aurreikusteko tresna sortu du, sistema meteorologikoen analisietan oinarrituta.

Alemaniaiko zientzialari talde batek analisi meteorologikorako tresna berria diseinatu du, zehazki, «El Niño» fenomenoak Hego Amerikan eragiten dituen eurite bortitzen %90 iragartzea ahalbidetuko duena.

Alemaniaiko Klima Eraginaren Ikerkuntzarako Potsdameko Institutuak (PIK) garatu du tresna hau eta xehetasunak orain gutxi aurkeztu ditu. Sortzaileek nabarmendutakoaren arabera, Boliviako eta Argentinako Andetan izan daitezkeen euriteak aurreikustea ahalbidetuko du sistema honek.

NASAK eta Japoniako Espazio Agentziak (JAXA) garatu dituzte algoritmoak azken 15 urteetan bildutako 50.000 datu meteorologikoen analisiaren bitartez. «Euri laino erraldoiak Buenos Airesko eskualdean sortzen direla deskubritu genuen. Gero, ipar-mendebaldera mugitzen dira, Andetako eremura, eta, bi egun geroago, eurite bortitzak eragiten dituzte bertan», azaldu du Niklas Boerse, ikerketaren egileetako bat denak. «Analisi sistema konplexuak erabiliz, Hego Amerikako Andetan fenomeno horiek iragartzeko modua aurkitu genuen», gaineratu du.

Abendua eta otsaila bitartean, aire hezeak sortutako masak Ozeano Atlantikoko eskualde tropikaletara iristen dira, eta mendebalderantz mugitu, Andetako mendikatearekin topogiten duten arte. Hegoaldera egiten dute orduan, bertan, Pla-

tako arrotik datozen fronte hotzekin elkarreragiteko.

Fenomeno horren ondorioz, eurite handiak gertatzen dira altuera handiko mendi gunetan, edota hegoaldean, ikerketak barnebiltzen dituen eskemen arabera. «Harrigarria da. Orain arte interpretatzen zenaren aurka, gertakari horiek hegoalderantz zuzentzen diren haizeen kontrako norabidean hedatzen dira», dio Boerse.

UHOLDEAK MAIZ

Presio atmosferikoa aldatzen hasten denean gertatzen da «El Niño» fenomeno eta bi ondorio nagusi ditu: itsas mailaren igoera eta Ozeano Barearen ekialdeko ur azala berotzea.

Ostera, beste eragin batzuk ere izan ditzake, bereziki herri-tarrak kaltetzen dituztenak. Esaterako, landagunean sortzen dituen kalteak. Nekazal gunetan, esaterako, landatutako produktuak galdu daitezke, eta, ondorioz, nekazariak galera ekonomikoak izan ditzakete.

Era berean, etxaldeak sunsittuta geratzen dira hainbatetan. Galera, beraz, ekonomikoa izate-

Presio atmosferikoa aldatzen hasten denean gertatzen da «El Niño» eta bi ondorio nagusi ditu: itsas mailaren igoera eta Ozeano Barearen ekialdeko ur azala berotzea

Muturreko euriteek orain arte aurreikusteko zailak ziren uholdeak eragin ditzakete, 2007an Hego Amerikan 400 milioi dolarreko kalteak eragin zituztenen modukoak



az gain, pertsonala eta emozionala ere bada.

Egileen hitzetan, metodo berri honek fenomeno euritsuen %90 aurreikustea ahalbidetuko du. Gehienak «El Niño» fenomeno klimatikoarekin gertatzen dira, orduan izaten baitira ohikoagoak uholdeak. Eurite horien %60 inguru, beste egoera bartzuen ondorio dira.

Gauzak horrela, eta fenomeno honek eragin ditzakeen nahasmenduak kontuan izanik, fenomeno meteorologikoak aurreikusi ahal izateak kalteei eman beharreko erantzuna lehenago eta modu eraginkorragoan gartztea ahalbidetu dezake.

Aste honetan bertan, uholdeak izan dira Argentinan, Bragado hirian eraginez kalte larriak. Eguraldi txarreko fronte batek hamarnaka lagun ebaquazioa eragin du eskualdeko hainbat tokitan eta hegaldi asko bertan behera geratu dira. Buenos Airestik 200 kilometro ingurura kokatua, nekazaritza guinea da Bragado eta 40.000 biztanle inguru ditu.

Etxebizitza askok izan dituzte kalte handiak. Teilatu batzuk hegan atera dira eta eroritako zuhaitzek egiturak hondatu dituzte. Dena dela, ez da biktimarik egon, nahiz eta energia iturrietan etenak gertatu hainbat zonaldeetan.

Bragado hirian 100 pertsona inguru ebakuatu dituzte eta kaleetan etxetatik hegan irtendako tresna eta altzari ugari ikus daitezke. Autoak ere uretan trabatuta gelditu dira zenbait lekutan, eta herritarrek arazoak izan dituzte oinez ibiltzeko ere, urak hartutako altueragatik.

La Plata izan da kaltetutako beste hirigune bat. Bertan, Estadio Único zelaiko teilatuaren zati bat airean atera da. Garraio zerbitzuei dagokienez, ur azpiko trenak geldiarazi ditute eta hiri-buruko bost metro lineatan ere kalteak izan dira.

Kalteez harago, herritarren ikusmira ere eragin du gertakariak eta asko izan dira sare sozialetan uholdeen nondik norakoa jaso dutenak. Horrela, herrialdeko hainbat eskualde-



Zulo beltzak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ez da posible, ezin liteke...» abesten du Ordorikak. Xalba-

dorren heriotzaren berri izan zue-
nean, Lazkao Txikik esana. Iruditzen zait aurrerantzean hitz larriz errepikatuko dugula, Angel Lertxundik "Berria"ko zutabea-
n zuzen asko zioen bezala, kasta-
jendearen beharrean kasta-politi-
koaren esku jarraitzen badugu. Ez
da posible... euskal Kutzekin ger-
tatzen ari dena! Aitortzen dut ha-
rritu ninduela Joseba Egibarrek
botatakoak, «Zer kalte egin die-
zaioke Kutzari zati bat enpresa ba-
tzuen esku uzteak?», pribatizazio-
aren aldekoa zela *vox populi* zen
arren, publikoki onartu zuelako
lasai asko. Harrokeria ote? Beste
kasta batekoa zelakoan. Euskal ku-
txa publikoek finantza-merkatu
ilunen eta txartel beltzen gala-
xian nabigatzeko eskola pribatu
bihurtzeko hautua egin zuteneko
urtea bezala gogoratuko dugu
aurtengoa. Laguntza behar dute-
nak bihozgabe kale-gorrian jar-
tzen dituzten kutxa-kastakoak.

Ez da posible... Garoña ere iren-
tsaraztea. Eta, gainera, kasta-poli-
tikoak erantzule nagusi den Iber-
drola babestea. Ez da posible...
AHTrekin burdinbide herdoilduek
ama lurra alderik alde orbaintzea
eta guztion poltsikoak xurgatzea.
Frantziako Kontu Epaitegiak sala-
tu duenez, lehenik, erabiltzaileen
datuak puzten dira, erabaki politi-
koa dator gero eta, azkenik, finan-
tzaketa bilatzen da. TGVren xahu-
keta erraldoiak ezinbestean
herrialdea amildegira darama.
Baina hemen, bost axola kasta-
politikoari amaierarik gabeko zu-
lo beltzera amiltzen bagara, beste
batzuen patrikak betetzea lortzen
badu.

Gure herriaren etorkizuna gida-
tuko duen itsasargia Kataluniak
ibili bidea bada ere, nago zulo bel-
tzera amilduko ez bagara, aurrez
nahikoa lan dugula burdinbidez
jositako eta kutxak pribatizatuta-
ko herri nuklear bat eraikitzen ari
diren bertako kasta-politikoare-
kin... Herri berria sortuko bada,
hauekin ...ezin liteke! •

tan izandako kalteen argazkiak
ikusgai daude sarean.

Uholdeak tenperatura altuko
bi egunen ondoren gertatu dira.
Urrian ohi ez bezalako tenpera-
turak erregistratu dira, eta mar-
ka berria ezarri da 40 graduko
temperaturarekin.

BESTELAKO ERABILERAK

Horrelako gertakariei aurre egi-
teko sistema berri honek izan
ditzakeen bestelako erabileren
balioa azpimarratu du José Ma-
rengo Brasilgo Espazio Ikerkun-
tzarako Institutu Nazionaleko
kideak. Esate baterako, udal ins-
tituzioek emaitza hauek baliatu
ahal izango dituztela kontuan
izanik, kalte handiak eragiten
dituzten fenomeno meteorolo-
giko horien aurreko erantzuna
lantzea ahalbidetuko duela jaki-
narazi du.

Izan ere, muturreko euriteek
orain arte nekez iragarri zitezke-
en uholdeak eragiten dituzte,
2007 urtearen hasieran Hego
Amerikan 400 milioi dolarreko
kalteak eragin zituzten haien
modukoak.

Joan den urriaren 29an
Buenos Airesen izandako
uholdeen ondorioz, autoak
uretan harrapatuta gelditu
ziren eta jendeak nekez
egiten zuen oinez.

AFP

Jürgen Kurths, ikerketaren
beste egileetako bat, egindako
lanaren zailtasunaz aritu da.
«Datu meteorologikoak aldera-
tzea gauza erraza dela pentsa
daiteke, baina guk geuk garatu-
tako baliabide matematiko be-
rriak erabili behar izan genituen
muturreko fenomeno horietan
gertatzen diren lotura konple-
xuak hautemateko. Datuak hor
zeuden, baina orain arte inork
ez zituen euren arteko loturak
ezarri», azaldu du.

Gainera, sistema hau osatzeko
garatu behar izan duten eredu
matematikoa oso bestelako ere-
muetan aplikagarria izan daite-
keela aipatu du. Beste eskualde
batzuetako fenomeno meteoro-
logikoak aztertu eta iragartzeko,
adibidez.

Halaber, beste mota bateko
sistema konplexuetan ere era-
biltzeko modukoa da. «Esatera-
ko, finantza merkatuetan apli-
katu ahalko da, baita garunaren
jarduerak behatzeko edota lurri-
karak detektatzeko ere», ziurta-
tu du alemaniar fisikari eta ma-
tematikariak.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Etxabeak

Espazio publiko-pribatuak dira etxabeak. Kaleetako fatxada osatzen dutenez, funtsezkoak dira hiri-paisaiaren kalitaterako. Behe-solairuetan dena eta taberna jendetsuak ikustea gustatzen zaigu, giro alai ematen dietelako kaleei. Hala ere, nekeza da herriguneetatik aldentutako etxabeak betetzea, beren komertzio-balio txikiagoa denez errentagarritasun urriagoa ematen dutelako. Horregatik dago hain hedatuta Europako herrialde gehienetan, euskal herritarrontzat preziatua izan ez arren, komertzialak ez diren kaleetako behe-solairuetan etxebizitzak ezartzea. Horrela, hemen nabarmenagoa izaten ari da krisiak eragindako lokalen hustuketa, gure hirietako erdiguneetan ere pairatzen ari dena, komertzioaren gainbeheraren erakusgarri. Hustu egiten ari dira etxabeak, zenbait zonatan bereziki.

Tokiko merkataritza sustatzeko, hain zuzen, 255.000 euroko publizitate-kanpaina bat hasi du Eusko Jaurlaritzak, urriaren 27an. Helburu egokia, inondik inora, baina bateraezina beste administrazio batzuek aurrera eramaten dituzten komertzio-politikekin: aldirietan zein hiriguneetan oraindik ireki eta ireki ari diren merkataritza-zentro ugariak ez baitute gehiegi laguntzen egoerari buelta ematen. Agintari batzuk, gainera, inolako lotsarik gabe ari dira tokiko gertuko merkataritzaren aurka: Javier Maroto Gasteizko alkateak berak EAEko lehen Mercadona supermerkatua inauguratu zuen, pasatu den urriaren 8an. Harrigarri samarra, Juan Roig Mercadonako presidenteak (eta FAES fundazioaren babesle

aitortuak), otsailean, Gürtel kasuagatik Ruz epailearen aurrean deklaratu izana ez bilakatzea eragozpen, baizik eta pizgarri.

Krisiaz eta azalera handiko saltokiez gain, bada beste kontu bat lokaletako negozioen biziraupena kolokan jartzen ari dena azken urteotan: auzo-atarietan egindako obrak, bai igogailu berriak ezartzeko bai igogailu zaharrak zero-kotara jaisteko. Irisgarritasunaren izenean karga handiak, batzuetan gehiegizkoak, ezarri baitzaizkie etxabeetako jabeei. Dela lokal-zatien desjabetzeengatik dela behar-beharrezkoak baino dezente harago doazen obren ordainketengatik, zenbait lokaletako jabeak etsita eta babesgabe sentitzen dira. Hori dela eta, aldarrikapen-lanak batera egiteko lobbyak sortzen hasi dira. Esaterako, Alaci izeneko elkarteak sortu berri dute Gasteizen, kanon bidegabeen aurka borrokatzeko: FAVA Arabako auzo-elkarteen federazioarekin batera iragan urriaren 3an ezagutaraziko oharrean, maiz 25.000 euro baino gehiagoko ordainketei aurre egin behar dietela salatu zuten, eta desjabetzeen ordainak oso baxuak direla. Dendari ugariak itxi behar izan du gastu horiek gainezka eginda.

«Gure herrien eta hirien merkataritza-egitura gure gizarte-bizitzako ereduaren oinarritzko osagaia da, hiriko animatzaile ordezkazina da; gizarte-harremanak errazten ditu, eta hirietako bizitza indartzen du», dio arestian esandako kanpainaren azalpenak. Ea administrazioak bere teoria praktikara eramaten duen. •



Krisiak eragindako lokalen hustuketa nabarmena da. GAURB

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Orduko Herri Batasuna eta gaurko Podemos

Podemos fenomeno bat da, haize berria ekarri eta gauzak beste era batean egin daitezkeenaren ideia indartu du, olatua altxatu du, jendeak entzun egiten du bere mezua, lagunarteko hizketaldietan presente dago, eta, bai, atentzioa eta jakin-mina pizten du. Asteon nabarmena izan da hori guztia. Euskal herritarrek alderdi batez hitz egin badute, hori, dudarik gabe, Podemos izan da. Ez EAJk, ez Sortuk, ez PSEk ez dute halako inpakturik izan.

Alderdia osatzeko prozesuan da Podemos. Sortze-batzarra egin dute Madrilen eta gertakizun sozial eta mediatiko bihurtzen jakin dute. Jakina, PPko buruzagien ustelkeria eta hamarnaka alkate eta enpresabururen atxilotetek lagundu egin diete. Gain hartu duen ustelkeriak deskonposizioa irudikatzen du, sinesgarritasuna zeropetik dago –eta politikan, behin galduta, oso-oso zaila da berreskuratzeara eta agintariak mafia bat direnaren ustea oso hedatuta dago. Horren aurrean, Podemos, ustel lotsagabe horiei guztiei muturreko bat emateko aukera iritzita, bazterreko mugimendu izatetik zentralitatea hartu duen alternatiba erreal gero eta sendoagoa da.

Hauteskundeak gerturatu ahala kalkulu eta jokaldi berriak ageri dira eta, Espainian bezala, Euskal Herrian –eta Katalunian– Podemos asko aldatu ditzake zenbakiak, aliantzak eta estrategiak. Alderdien goi mailetan Podemos oso kontuan hartu beharreko elementua da. Euskal Herria-Estatua marra irudikatzen da sarritan, eta ezin da ukatu bere existentzia. Baina, agian, euskal herritarrok apur bat espainol garelako edo auskalo zergatik, marra hori desegin eta Podemos etxekotu egin den fenomeno da. Euskal politikaren bihotzean sartu den labankada garden bat izan da.

Lagungarria da hori. Espainian Podemosi gauzak ondo joatea ona, oso ona izan daiteke Euskal Herriarentzat. Poztuko ninduke. Besterik da, eta normala, Podemosek irabazteko anbizio osoa erakustea eta posible dela sinestea eta zabaltzea. Zail ikusten dut, baina, aritmetikak Trantsizioaren zutabe izan den PP-PSOE duopolioaren gehiengo ematen duen bitartean, Podemosek bakarrik Trantsizioaren arkitektura deseraikitzea eta haustura demokratiko eta iraultzaile bat Espainiara ekartzea. Izan ere, Estatua estatua da eta alderdi politikoak beste gauza bat. Baina, hipotesia egi bihurtzea, Podemosek bakarrik irekitzea aukera

hori, Katalunian dagoenarekin batera, eta Euskal Herrian prestatu beharko genukeenaz gain, mundiala litzateke. Hiru fronte zabalik eta, asko, irabazteko asko.

Zuzen eta dotore aritu behar dugu Podemosekin. Beharrezkoak ez diren talkak ekidinez, nahitaezkoak izan daitezkeenak zainduz, haren eguneroko jarduna errespetatuz. Elkarlana, elkarriketa eta elkarkidetzatza gauza daitezkeen arlo asko daude. Izan bitez ongi etorriak. Badakit, bestalde, Podemosek egiten dituen gauza batzuek eraginkortasuna baino izen hobe bat dutela. Famatu egin direla Espainiako komunikabideetan. Antolakuntza mailako bere prozesuan argitzalak ikus daitezkeela. Baina edonola ere, handia da egin dutena. Beste alderdi batzuen sortze-prozesuek lortu ez dutenaren aurrean ikasgai politak utzi ditu.

Politika ere bada, zerbantinoz esaten den bezala, «vestir la mona» bat egitea. Eta herritar xume askoren begietan politika orangutan bat baino zatarragoa den honetan, Podemosek tximino batzuk nola jazten dituen ikusteak eta

Lagungarria da Podemos. Eta Espainian Podemosi gauzak ondo joatea ona, oso ona izan daiteke Euskal Herriarentzat. Poztuko ninduke

publiko zabalaren aurrean zein apain eta fresko aurkezten den ikusteak ezin hobeto hitz egiten du haietaz.

“Berria” egunkariak Arnaldo Otegi egindako elkarrizketa eder eta aski zorrotzean 1978ko Herri Batasunaren izpiritua aipatzen da. Ados nago, oso. Podemosekiko lilura batetik baino, askoz ere gehiago ikasi dezakegu gure esperientzia eta historia propiotik. Etorkizuna ez da iraganaren inertzia eta normal egiten ziren kontuak eguneratzea. Baina gure sorrerako kromletxeen bildu, eta, bertan inspirazioa hartuta, gauza handiak ikasi eta egin daitezke.

Natural ateratzen zait, aupa Podemos eta zorte on! Ondo badoakizue, herri honentzat hobe. Hemen gaituzue, laguntzeko prest, zuen laguntza jasotzeko gogoz, eskua luzatuta, euskal herritarren batasuna abiapuntu eta helmuga gisa hartuta. Sigla, txikimundu, parrokia eta tribu oroz gain, euskal herritarren batasuna bultzatuz, herri mugakideekin elkar ulertzeko eta eragiteko gogoz. •

HARRERA

Duintasunaren gailurrera igotzeko makulu den elkarte asistentziala

📁 JENDARTEA / oihana.llorente@gaur8.info

Preso zein iheslariek etxetik banantzen dituen distantzia zeharkatzen duten unea zirrargarria da. Deserria eta herria bat egiten duten une horretan bertan, amesgaiztoa lausotzen delakoan gaude, baina sarri ez da hala izaten. Kartzelatik irten bai, baina kartzelaren ala deserriaren itzaletik ezin ihes egin egoten dira asko denbora luzez. «Orduan hasten da maratokia», dio Santos Berganzak. Oraindik ez dira 365 egun igaro askatasuna berreskuratu zuenetik, baina ez du berehala ahaztuko azken urtea. Sufritzea zer den ondo daki amurriarrak, 24 urte eta erdi igaro ditu eta espetxean, sorterritik milaka kilometrora dispertsatuta. Askatasuna berreskuratu ondorengo urtea, baina, «gogorra» dela dio hunkituta, eta halaxe antzeman ere.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 197/2006 doktrina – Parot doktrina gisa ezagunagoa – baliogabetuta berreskuratu zuen askatasuna Berganzak, baita ondoan duen Joseba Artola “Txakur”ek ere. 52 urte ditu bilbotar honek eta 27 urte eta erdi eman ditu preso: «Pentsa, kalean baino denbora gehiago!».

«KONTRASTE HANDIKO HERRIA»

Gogoan iltzatuta dute biek aske geratu ziren unea, bai eta senide eta lagunaren lehen besarkadak ere. «Hitzekin nekez azaldu daiteke lehen uneetan sentitzen zuzuna... Memento horien intentsitateak gainditzen zaitu», dio Artolak sentimenduei hitzak ipintzeko ariketan. Askatasunaren lehen asteak «hodei» batean igarotzen ditu presoak eta inguruko guztiak bere arreta pizten du. Bilboko itsasadarrek kiratsik ez izateak harritu zuen gehien Artola, barrez aitortu moduan.

Hodeia lausotu eta preso ohiak lur hartzen duen bitartean, ordea, nahi baino beherago doa presoaren gogo aldartea. Sorterrira itzultzeak eragiten duen poza handia den arren, inoiz ez da hamarkada luzeetan itxaron duten modukoa.

«Kontraste handiko» herria aurkitu du Asun Aranek. Hiru

Harresiak gorrotatu egiten ditu presoak. Haiekin ohitu egiten da ondoren, beharrezko bihurtu arte kasik. Kartzela ala deserria dira errepresaliatuaren habitat naturalak eta haiek gabe, noraezean dago. Jendartean duintasunez integratzeko ibilbide neketsuan makulu izan nahi du Harrerak



Fernando Etxegaraik hogei urte igaro ditu preso. 2012tik Harreraren ari da lanean, arlo administratibojuridikoan zehazki. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

hilabete ez dira igaro ozeanoa zeharkatu, eta Euskal Herria berri bistaratu zuenetik. Ihesaldia, konfinamendua eta deportazioa, horiek atzean utzi dituen lau hamarkaden katebegiak.

Hemeretzigarren urtebetetzea ospatzeko apenas izan zuen aukerarik Asunek. Hezten ikusi zuen Arrasateri gero arte esateko tenorea iritsi zitzaion eta urtebetetzearen biharamunean. Gabonetan etxeko suaren bueltan egongo zela sinestuta egin zuen ihes. Lehen Gabon haien ostean, “hurrengo Gabonetan, bai, hurrengotan seguru”, esaten omen zion bere buruari. 40 urte igaro dira ordutik, eta aurtent ospatuko ditu estreinakoz etxe giroan.

KONFINAMENDUA ETA DEPORTAZIOA

1974 urtean, Franko hil aurretik, hasi zuen Asunek deserrirako bidaia. Ipar Euskal Herria izan zuen lehen aterpe eta bertan jaso zuen, 1975 urtean, Jesus Mari Markiegi bikotekidearen heriotzaren berri.

Konfinamendua ere ezagutu zuen arrasatearrak, Yeuko irlara eraman baitzuten beste hamai-ka errefuxiatuarekin batera. Abila dirudi Arana oroitzapen tristeak erauzi eta ederrak erneztzeko lanetan, eta konfinamenduko pasarte bakarra partekatu du gurekin; José Miguel Beñarán Ordeñana “Argala”rekin ezkondu zen egunekoa. Konfinamendua amaituta, ezbehar gehiago etorri ziren. 1978 urteko abenduaren 21ean, Argalaren heriotzari aurre egin behar izan zion 23 urte besterik ez zituen Asun Aranek.

Deportazioak Aljeriara eraman zuen lehenengo, baina ETak eta Gobernu espainolak bertan hasitako elkarriketak etenda, hegazkin batean sarrazazi eta Venezuela izan zuen helmuga. 25 urteko egonaldiak aberri ere bihurtu du Venezuela. «Bizitza zor diogu herrialde horri. Harrera ona egin digute eta lan egiteko aukera izan dugu. Chavezen prozesu eder horren parte izateko aukera izan dugu eta hori, guretzat, oso aberasgarria izan da. Oso urte garrantzitsuak izan dira nire bizitzan, be-

Galduta egoten dira preso ohiak atera berritan. Tximeletak behinola zizarea izan zela ahazten ez duen bezalaxe, presoak preso ohia izan behar du, ondoren, nahi duena izateko

«Orain arte, preso ohiek inguruko laguntza zuten bakarrik. Ekonomikoki hobeto, lagun talde zabalagoa edo bizi diren zonaldearen arabera integratzeko baldintzak zituzten»

ti presente izango ditudanak», dio mende laurden baten bizi-penak laburtu nahian.

Venezuelarrek etxean bezala sentiarazi duten arren, Aranak ez du sorterrira inoiz ahanzi, ezta guregana itzultzeko itxaropena galdu ere. Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak urratsa eman zuenean, mundua zeharkatu, eta guregana itzuli da.

Haurdun egin zuen Aljeria eta Venezuelako arteko bidaia. 25 urteko semea altzoan ekarri du orain. Erlojuaren orratzen geldiezintasunaren seinale. Amaren habitik ihes egin eta Venezuelen sustraituko zenaren beldurra oso presente izan du Asunek. Zorionez, baina, aukera iritsi denean ama-semeak elkarrekin eman dute herrira itzultzeko pausua.

AUSENTZIAK PRESENTE

Hegazkinak lur hartu zuela ia hiru hilabete igaro arren, Asun ez da oraindik lurreratu. Poliki ari da denbora luzean gordetako emozio guztiak askatzen. Lazkaon hartu du aterpe eta bertako bidezidorretan topa dezakegu maiz. «Herriak asko aldatu dira, baina gure tontorrek hor jarraitzen dute», dio leihotik ihes egiten dion begiradari eutsi nahian.

Santosek eta Josebak bezala, ez du inoiz Arrasaten egin zioten harrera goxoa ahaztuko. Hurbildu ahala txaloen burrunbak eragindako zirrara presente du oraindik: «sekulako korapiloa egin zitzaidan, sentimendu piloa nahastu zitzaidan. Poza, noski, baina baita tristura ere, une hura bizitzeko aukerarik oraindik izan ez duten, edo da-



Jean-Marie Saint-Pée, Eiheralarre herrixkan 2012an egin zioten ongi etorrian. Gaizka IROZ

goeneko izango ez duten horientzat: «Haiek dira zulotik atera nautenak. Batzuk ez ninduten ezagutu ere egiten, beste batzuk kartzelan ezagutu naute, gutxi dira espetxealdi aurreko lagunak direnak. Baina haiek gabe ez dakit non nengokeen».

Ausentziak. Lehen begi kolpean sentitzen omen ditu preso ohiak. Hala gogoratzen du Artolak: «Bilbora iritsi, autotik irten eta bildutako jendetzak hunkitzen zaituen arren, hutsuneak ikusten dituzu lehen». Eurak bezala gatibu daudelako, hamarkada hauetan heriotza aurkitu dutelako, edo bizitzaren errota aurrera egin eta laguntasunak aldatu dituelako.

Hutsune horiek betetzea izaten da errepresaliatu ohiaren lehen egitekoa. Santosek esker oneko hitzak besterik ez ditu urte honetan alboan izan eta aste-buruetan harat eta honat eram-

an duten horientzat: «Haiek dira zulotik atera nautenak. Batzuk ez ninduten ezagutu ere egiten, beste batzuk kartzelan ezagutu naute, gutxi dira espetxealdi aurreko lagunak direnak. Baina haiek gabe ez dakit non nengokeen».

Galduta. Halaxe daude preso ohiak atera berritan, burua, kanpoan baino, barruan dutelako. Tximeletak behinola zizarea izan zela ahazten ez duen bezalaxe, presoak preso ohia izan behar du lehenengo, ondoren, nahi duena izatera iristeko. Bizitzen ikasi beharra dagoela uste du Artolak: «Kartzelara sartzea bezala da, baina alderantziz», dio.

Bizitzako prozesu horretan laguntza ezinbestekoa da. Artolak, umetxoaren antzera, neskalagunaren eskutik hartuta igaro zuen lehen hilabetea, «metroa erabiltzen irakatsi zidan, telefonoan aritzen, kalean ibiltzen...», ekarri du gogora.

HARRERA DENEN ESKURA ETA ONDOAN

Denek, baina, ez dute beharrezkoa den laguntza hori eskura. Harrera Elkartek hutsune hori betetzeko bokazioz abiatu zuen bere bidea orain bi urte. Hasieran maldak besterik ez dituen ibilbide neketsuan makulu izan nahi du Harrerak.

Fernando Etxegarai arlo administratibo-juridikoaz ardura-



tzen da eta berak eman digu Harreraren berri: «Orain arte, preso ohiek ingurukoen laguntza izan dute soilik. Horrek guztiak, ekonomikoki hobeto daudenak, lagun talde zabalagoa dutenak, edo bizi diren zonaldea abertza-leagoa denean, integratzeko baldintzak hobetzea ekarri du», bota du hausnarketa moduan. Loteria horren injustiziaz jakitun, nagusiki izaera praktikoa duen elkarte osatu, eta laguntza eskaintzeari ekin zioten.

Espetxetik ala erbestetik itzultzean, jendartearen egokitzeko eta haien bizitza berria duintasunez eraikitzeak ahalik eta laguntza handiena eskaintzea da Harreraren egitekoa. Zehazki, lau alorre-tan egiten du lan: juridiko-administratiboa, osasungintza, lana eta asistentzia ekonomikoa.

Presoak, askatasuna berreskuratuta, administrazioaren sarean sartu behar izaten dute. Izan ere, nortasun agiria berritzeko, sorospen laguntzaren bat eskatzeko edo Lanbiden ala INEMen izena emateko premia dute gehienek.

Ez da samurra izapide horiek betetzea eta burokraziaren amaraunean preso gelditzen direnak ez dira gutxi. Egoera hori ekiditeko, Harrerak aholkularitza eta

laguntza zerbitzua eskaintzen die behar dutenei. «Administrazioan nola mugitu behar duten erakusten diegu eta, nork lagundu ez badute, haiekin goaz bulegoetara», dio Etxegaraik. «Izapide hauek egitea ez da kartzelako instantziak betetzea», dio, umorez, Artolak.

AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA

Gida baimena ere bada preso ohiek eskuratu beharreko dokumentazioa. Preso hartu ala erbestera aurretik atera zutenek hura berritzea besterik ez dute. Horretarako aukera izan ez zutenek, errazagoa dute orain, Harrerak eskura jartzen dien auto-eskola sareari esker. Gastu horri aurre egiteko gai ez diren errepresaliatuei gainera, Harrerak berak ordaintzen dizkie klase zein azterketa tasak ere.

Estatu espainolak Caracasen duen kontsulatuan eskuratu zuen Aranak pasaporte espainola. Harekin egin zuen Venezuela eta Euskal Herria arteko bidaia. Orain, baina, Harrerarako kideak lagun hartuta polizia espainolaren komisaldegira joan eta nortasun agiri espainola eskuratu du. Esker oneko hitzak besterik ez ditu bidaide izan zuen horrentzat, onartzen duenez

Asun Aranak 19 urterekin egin zuen ihes. Ihesaldia, konfinamendua eta deportazioaren katebegiez osatutako lau hamarkaden ostean, oraintxe itzuli da sorterrira.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

errepresaliatu politikoentzat «trago txarra» da komisaldegira joatea.

Deserrian egondako errepresaliatuak atzerrian lan egin eta kotizatutakoa nola homologatu aztertzen ari dira orain. Erretiro garaia askori hurbiltzen ari zaien honetan, bereziki kezkatzen dituen kontua da. Asunek, urtebete besterik ez du Estatu espainolean kotizatua eta egun 58 urte ditu. Oraindik ez du lanik aurkitu, baina lortuta ere, ez du kotizaziopeko erretiro pentsioa kobratzeko beharrezkoak diren hamabost urteko kotizazioa lortzeko astirik ere. «Gaztetan halako gauzek ez ninduten apenas kezkatzen, orain, baina, geroari errespetua diot», aitortu digu.

Hasieran harresiak gorrotatu egiten dituzu. Ondoren, haiekin ohitu egiten zara, harresi eta murrak beharrezko izan arte kasik. Presoaren habitat naturala, finean, espetxea da

Lehen asteak «hodei» batean igaro ohi ditu preso ohiak. Hodeia lausotu eta preso ohiak lur hartzen duen bitartean, ordea, nahi baino beherago doa presoaren gogo aldartea

Errepresaliatu gehienek antzeko izapideak egin behar dituzten arren, badira hainbat egoera partikular ere. Aranaren semeak, adibidez, gaur gaurkoz ez du nazionalitate espainolik eta beraz, ezta osasun eskubidea bermatuta ere. Era berean, Venezuelan egindako ikasketak homologatu beharrean aurkitzen da. Lan horretan dabil orain semea, amak goxotasunez erakutsitako euskara euskaltegian hobetzen duen bitartean.

OSASUNA, ZAINDU BEHARREKO KONTUA

Urte luzeetako espetxealdiaren ostean, osasuna bada zaindu beharreko kontua. Harreraren lehen gomendioa norberaren medikuarengana jotzea da, bertan egiten baitzaie lehen azterketa medikoa. Odol eta gernu analisis egin eta arazo zehatzen bat aurkituz gero, espezialistarenagana bideratzen dute medikuek eurek.

Odontologia eta oftalmologia dira, baina, osasun publikoak lantzen ez dituen alorrak. Preso ohiek ikusmenean begi bistako arazoak dituzte. «Nik pareta ikusten nuen lehen, baina orain pareta ez dudanez, ez dut deus ikusten», dio Santosek barrez, betaurrekoak kentzen dituen bitartean. Urteetan zehar zeruer-

tza lau metro koadrokoa izateak, espetxeko itsumena eragiten die presoei. Ikusmen azterketa sakona egin eta beharrezkoak diren neurriak hartzen laguntzeko oftalmologo sarea osatu du Harrerak, eta bertara bideratzen dituzte laguntza eskatzen duten guztiak.

Espetxeko elikadura eskasak, gose grebek eragiten duten deskaltzifikazioa eta urteetako jarraipen ezak arazo larriak eragiten ditu presoan ahoetan ere. Urte luzeetan ikusi dituzten dentista urriek gainera, ez dituzte enpasteak gehiegi atsegin eta apenas haginik gabe ateratzen dira preso asko kalera. Odontologia zerbitzuak ez dira merkeak eta, askotan, espetxetik atera berri diren horientzat eskuraezinak dira. Harrerak, behar horretaz jakitun, odontologo sarea ere osatu eta errepresaliatu ohien zerbitzura ipini du.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Arlo psikologikoko zerbitzua ere eskaintzen du Harrerak. Behar baino gutxiago erabilia, ziur aski. «Barruan laguntzarik eskatu ez badut, nola eskatuko dut orain? Oso, oso, oso gaizki egon behar duzu horretarako», dio Santosek. Baietz dio buruarekin Etxegaraik, eta argi du laguntza eskatzea ez dela kolektibo honen ezaugarrietako bat. «Preso ohiak topatzen dituen arazotxoak egokitze faseari egozten dizkio gehienetan. Batzuetan, ordea, bada zerbait gehiago atzean», dio.

Hasieran harresiak gorrotatu egiten ditu presoak. Ondoren, haiekin ohitu egiten da, harresi eta murrak beharrezko izan arte kasik. Presoaren habitat naturala, finean, espetxea da. Bertan bizirauten ikasi dute; kalea, ordea, oso bestelakoa da, ezezaguna, arrotza... «Hainbeste gauza dira hain denbora gutxian, nik negar asko egin dut kalean. Jende pilaketek, altuerak eta espazio irekiek ikaratu egiten zaituzte, abiadura ez duzu kontrolatzen eta batzuetan semaforo bat zeharkatzeko gai ez gara... Kartzelan ez duzu sistemaren aurrean amore eman nahi eta borrokan zaude etenga-

info+

Harrera elkartearen laguntzeko:

Euskadiko Kutxa:

3035 0092 51 0920053599

Caja Rural:

3008 0203 88 2564558613

Kutxa:

2095 5006 31 1074884684

Lanpostuak eskaintzeko:

karlosioldi@gmail.com edo 64764 29 54 telefonoa

be. Han dena agintzen dizute, patiora, ziegara, zuk ez duzu deus erabakitzen. Eta kalean, al-diz, inork ez dizu ezertxo ere esaten eta horrek, maila batean, izorratu egiten dizu», dio arabarrak burumakur.

Askatasuna berreskuratu zutenetik ez du gau bakar bat ere osorik lo egin. «Espetxean lo se-

ko ematen nituen gauak, baina, orain buruari eragin eta ezinean nabil», aitortu du.

Bikotearekin ala seme-alabekin duten harremana da preso ohi askoren kezka iturria, harremanak birsortzea ez baita lan samurra. Santosek bi seme ditu. Lehenak 29 urte ditu eta dagoneko ez da etxean bizi. Gaztee-

nak 13 ditu eta galdutako denbora berreskuratzen ari dira orain. «Lau urterekin utzi nuen helduena, ez dit inoiz deus leporatu, baina... Txikia eta ni egin gara, kostatu zaigu, baina lortu dugu», dio gazi-gozo.

KARTZELAN, MINEZ

Barruan utzi dituzten euskal preso politikoak ere oso presente izan ohi ditu askatu berriak, eta euren senideak ikusi hutsarekin lur jota gelditzen dira maiz. «Hau ez da bukatu, eta manifestaldietan senideen ilara ikusteak bihotza urratzen dit», dio Santosek hunkituta.

Artolaren psikologo onenak barruan utzi dituen kideak izan dira: «Haiei esker biziraun dut barruan. Burua zapalduta eduki genezake, baina pattal xamar ikusten bazintuzten, leihora aterarazi eta goizeko laurak arte edukitzen ninduten barrezka. Zoragarriak dira!».

Psikologikoki gaizki ez, baina, apur bat min hartuta badaudela onartu dute biek aho txikiare-

Marilo Gorostiagak 19 urte eman ditu preso. Logroñoko espetxean zegoela jakin zuen bularreko minbizia zuela.
Idoia ZABALETA | ARGAKI PRESS



kin. Ez da gutxiagorako, bi hamarkada luze isolamendua eta jipoia eguneroko ogi diren muturreko egoera batean bizi ostean, ondorioak izatea arrunta da. «Egon zaitezte gutxienez eguneko hogeitazuen logelana sartuta. Ez egon 24 urte, astebete nahikoa izango da ohartzeko zer den hori», dio Santosek adibide gisa.

Marilo Gorostiagak ere ondo daki zer den hori. 19 urte eman ditu preso eta kartzelako pareten artean jaso zuen bularreko minbizia zuenaren berri lazgarria. Emakumezko euskal preso bakarra zen Logroñoko espetxean eta, hala, bakar-bakarrik, irentsi eta aurre egin behar izan zion gaixotasunari. Bi ebakuntza gainditu ostean, 2008 urtean espetxealdi arinduan ezarri eta etxean igaro ditu kartzelaldiko azken bost urteak. Baikorra da oso Gorostiaga eta berak azaldu bezala, «minbiziagatik hilko ez zela erabaki, eta ziur zegoen horrela izango zela. Pentsa, azaldu digu algarari ezin eutsita nire

abokatuak zigorra suspenditu eta osatzean bueltatzeko eskatu nahi zuen. Eta nire buruhauste handiena itzuli beharra zen!».

2013ko urrian berreskuratu zuen erabateko askatasuna eta «poliki-poliki aklimatatu» denez, ez zaio bereziki gogorra egin. «Logroñon nengoela ETB ere ikusten nuen, erradioterapia saioak jaso ahal izateko Iruñeko espetxera eraman ninduten, eta hortik etxeko espetxealdi arindura. Goizetan zein arratsaldetan hiru ordu eman nitzakeen kalean eta etsigarria bazen ere, egokitzen lagundu dit», dio azalpen gisara.

Iruindarra ez da melodramen zalea eta soilik minbizia gainditu zuela jakinda isuri zituen negar malkoak. Lagunekin terapia saio ederrak eginak ditu ere, baina, Harrerak eskainitako psikologo zerbitzua behin jaso eta emaitzarekin harriturik dago oraindik. «Ez nuen uste korapilorik nuenik, baina, psikologikoak galdera gako batzuk egin eta sekulako lasaituarekin atera

nintzen. Zer edo zer banuen hor», dio pentsakor.

Gutxi dira baina Marilo moduan laguntza eskatzen dutenak. «Egia esan, eskatzea da bizi-tzan gehien izorratzen didana. Kartzelan noski egiten duzula, dena eskatzen duzu, lana eman eta izorratzeagatik, baina kalean, ez», dio Santosek.

LAN MUNDUA

Errepresaliatu ohiak lan munduan integratzea da Harreraren beste egiteko bat. Lana bizi ahal izateko beharrezkoa izateaz gainera, duintasuna berreskuratzeko bidea dela uste du Harrerak. Joseba Artolak ekainean lortu zuen lana, Harreraren laguntzaz, eta goizeko seiretan «zoriontsu» esnatzen dela dio. Begiak blaitzen zaizkio lehen soldata eraman zuen unea akordatzeko eta une horretantxe familiarentzako «zama» izateari utzi ziola uste du. «27 urtetan dispertsioak dakarren gastuari aurre egin behar izan diote eta orain, 52 urterekin, dirua etxean

Ez dira 365 egun Santos Berganzak askatasuna berreskuratu zuenetik. 24 urte eta erdi eman ditu preso.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

7000

Euskal Memoriak ezkutatuko biktimak argitara ekartzeko egindako lanaren arabera, 1960tik 2010era, 7.000 euskal herritar baino gehiago espetxeratu dituzte eta 2.500dik gora dira errefuxiatutako pertsonak.

400

Urte hauetan guztietan, beraz, milaka dira askatasuna berreskuratu dutenak. Harreraren datuen arabera, 400 izan dira lau urteren buruan. 2010-2012an, 137 preso askatu zituzten. Hurrengo bi urteetan, 141. Eta etxera itzuli diren iheslariak ehun bat dira.



eskatzea oso gogorra da», aitor-
tzen du Artolak.

Etxegaraik badaki zer den ho-
ri eta, preso ohi guztiei diru-la-
guntza dezenteak emateko au-
kera balego ere, ez dela inolaz
ere kasua, laneratzeak bere bizi-
ko garrantzia duela deritzo. 2012
urtean hasi zuen ibilbidea Ha-
rrerak oso egoera ekonomiko
traketsean, baina hala eta guztiz
ere, urratsak eman dituzte. Iaz-
tik hona 62 lanpostu lortu di-
tuzte eta bi norabidetan ahel-
gintzen dira: lan merkatuko
postuak lortzen eta ideia berrie-
kin auto-enplegu dinamikak
sustatzen.

Harrerak bere lan poltsa pro-
pioa du eta eskaera bat jasotzen
duen bakoitzean zailtasun
gehien dituen errepresaliatu
ohiarekin gogoratzen ahalegin-
tzen dira. «Beti, baina, ezin da,
merkatuak eskatzen dituen bal-
dintzak betetzera behartzen gai-
tuzte eta», dio Etxegaraik. Edo-
zein lanpostu mota ongietorria
dela nabarmendu nahi izan du.
«Guk ez diogu ezeri ezetzik esa-

ten, eskailerak garbitzeko ere
prest gaude», dio Artolak.

Lanik gabeko egunak luze egi-
ten dira. «Espetxean esnatu, go-
saldu, patioan korrika egin eta
dutxatzerako bazkaldu behar
nuen, –ekarri du gogora bilbota-
rrak–. Klean baina, eguna askoz
motelago doa. Artxandara joa-
ten nintzen maiz, baina harekin
aspertu eta Durangora joatea
otu zitzaidan, Anboto ingurura.
Horretarako, baina, trenerako di-
rua etxean eskatu behar nuen».

Astiak buruari eragitea daka-
rrera uste du Berganzak eta «ho-
ri, beti ona ez dela», gaineratu du.

Lan mundua ere zeharo alda-
tuta aurkitu dute eta dagoeneko
«betiko peoia» ez omen da exis-
titzen. «Denerako behar dituzu
espezializazioak eta tituluak»,
dio kexu Artolak. Prestakuntzari
ere arreta jarri dio Harrerak. Ha-
la, Lanbidek edozein ikastaro
edo lan eskaintza egiten duene-
an haien berri emateaz gainera,
irakasle lanetan jarri dira. Izan
ere, ordenagailuekin aritzeko bi
ikastaro antolatu ditu Harrerak
berak. Curriculum vitae-ak egi-

Balantzea:

2013ko urritik 2014ko
urrira arteko balantzea
egin berri du Harrerak.

- **Odontologoa:** 53

pertsona

- **Oftalmologoa:** 22

pertsona

- **Lan mundura**

integratzea: 62 lagun

- **Gida baimena**

berritza: 27 pertsona

- **Gida baimena**

ateratza: 17 pertsona

- **Nortasun agiria:** 13

pertsona

- **Laguntza jaso:** 23

pertsona

- **DBE eskatu eta**

kudeatu: 13 pertsona

- **Ezgaitasunen**

ondorioz lortutako

diru laguntzak: 3

pertsona

tekoa bat eta wifiari buruzkoa
bestea.

Osasun zerbitzuetara bidera-
tzen duten diruaz gainera, badu-
te behar gorrian dauden errepre-
saliatu ohiei laguntzeko diru
poltsa bat. Urte batez, 500 euro-
ko diru laguntza ematen diete
bestelako sarrerarik ez duten ho-
riei. 2014ko balantzea egin berri
dute eta aurrean 23 preso ohiek
eskatu dute laguntza hori.

EGOKITZEKO GAITASUNA

Etxegaraik bere larruan sufritu
ditu espetxealdi luzearen ondo-
rioak, baina, Harrera ez da preso
ohien elkarte bat. Eskaini nahi
duten zerbitzua ahalik eta txu-
kunen eskaintzeko, espetxeko
ziegan lor ez daitekeen presta-
kuntza behar dute gainera. Ha-
rrera, beraz, errepresaliatuak
duintasunez integratzearen alde
egin egin nahi duten ororena da.

Egun, Andoni Iturriotzek be-
tetzen du elkarteko zuzendari
funtzioa, eta Sebas Barinagarre-
menteriak diruzainarena. Ain-
hoa Erkizia idazkaria da eta Jon
Ugarte, aldiz, koordinatzailea.
Fernando Etxegarai eta Juan
Karlos Ioldi arlo administratibo-
juridikoaz eta lanaz arduratzen
dira, hurrenez hurren.

Preso ohiek eta, orain, iheslari
ohiek dituzten beharrak bidera-
tu ditu Harrerak, eta bi urte
hauetan, zailtasun handiak aur-
kitu arren, balantze oso positi-
boa egiten du. Euren laguntza ja-
so duten errepresaliatuak esker
oneko hitzak entzutea besterik
ez dago, Harreraren beharra eta
funtzioa ulertzeko. «Guretzako
izugarria da atera eta hor daude-
la jakitea», aitortu du Artolak.

Bizitzan zailena erabakiak
hartzea dela diote askok. Ara-
nak, ordea, ez du hala uste, eta
Euskal Herrira ekarri duen he-
gazkinera igotzea hartu duen
erabakirik ederrena dela sines-
tuta dago. Hamarkada luzeak
erabaki gabeko herrialde eta
aterpeetan igaro ostean, pozez
zorutzen dago sorterrian. «Guk
zer edo zer badaukagu, egokitze-
ko gaitasuna da. Kanpoan ala es-
petxean egokitu bagara, nola ez
gara bada gure sorterrira egoki-
tuko?», dio itxaropentsu.

ERREALITATEAK IZOZTUTAKO ERRETIRO PLANAK

2012an ekin zion bideari Harrerak, preso
ohien uneko egoerarekin eta etorkizunarekin
kezkaturak. Unean uneko beharretan
laguntzeaz gainera, errepresaliatuak
erretiroan lagungarri izan nahi zuen diru
poltsa osatzeko asmoa zuen.

Kotizaziopeko erretiro pentsioa
eskuratzeke, gaur egungo egoeraren arabera,
15 urteko lanaldia kotizatu behar da.
Hamarkada luzeak ihesean ala espetxean
igaro dituztenek, edo kotizatu gabe lanean
aritu direnek, ez dituzte urte horiek
kotizatuta eta haientzat 325 euroko erretiro
pentsioa aurreikusten du legeak. Baldintza
bakarra, 16 urtetatik hasi eta 65era arte,
zortzi urtez Estatu espainolean erroldatua
egotea da. Iheslari guztiek betetzen ez duten
baldintza, alegia.

Erretiro pentsioa hobetzeko asmoa zegoen
Harreraren sorreran. 2014ko urtarrilaren
lehenean, baina, Gobernu espainolak pikutara
bota zituen Harreraren aurreikuspenak, preso
ohiei legez jasotzea dagokien 426 euroko
laguntza ukatu ostean.

Espetxetik irten eta baliabiderik ez duten

pertsonak gizarteratzeko neurri gisa jasotzen
zuten diru laguntza hori 18 hilabetez. Hura
ukatuta, baina, premia larrian daude
errepresaliatu asko. «Gauzak etortzen diren
moduan hartu behar dira, eta, orain horrek du
urgentzia– dio Etxegaraik–. Behar duenari
hilero 500 euroko diru laguntza ematen
diogu». 23 preso dira diru-laguntza jasotzea
eskatu dutenak, baina, Etxegaraik egindako
kalkuluen arabera, diru laguntza ukatu dioten
guztiek eskatu izan balute, 300.000 eurotik
gora beharko lituzkete.

Gaur-gaurkoz, bi finantzabide ditu
Harrerak: bazkideak eta autofinantzaketa.
Urtero 60 euroko kuota ordaintzen duten
2.017 bazkide ditu, eta, sanferminetan
alokatzen duten tabernarekin zein urtean
zehar saltzen duten material eta boletoe-
kin beste 45.000 bat euro lortzen ditu. Orotara,
beraz, urteko 170.000 euroko aurrekontua du.

Errepresaliatu ohien egungo eta, bereziki,
erretiro garaiako bizi baldintzak hobetzeko
ezinbestekoa dute diru gehiago eskuratzea,
eta euren ahaleginak horretara bideratuko
dituzte.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia Ballesteros



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Argazkiak: Jon HERNAEZ | ARGAZKI PRESS

Nekazaritza ekologikoa eta jantoki kolektiboak

Tokiko ekoizpen ekologikoa oinarri sendoz finkatzeko, jangela kolektiboak aliatu bikainak izan daitezkeela agerikoa da. Izan eskoletakoak, eguneko zentroetakoak, nagusien egoitzetakoak, erietxeetakoak zein lantegietakoak, egunero dozenaka, ehunka jale batzen dituen jantokia bezero aparta da nekazariarentzat, inolako zalantzarik gabe. Asteroko kontsumo handi eta finkoak, urtean zehar ia etenik gabekoak, hain zuzen. Alegia, tokiko nekazariarentzat dirusarrera ziurra suposatu dezakete jantoki kolektiboek. Edozein jarduera ekonomikotatik gertatzen den eran, nekazaritzan ere, bistan da, garrantzi handiko laguntza da hori.

Jantoki kolektiboen gaia, ordea, ez litzaiteke arlo ekonomikoaren ikuspegitik soilik aztertu behar. Are gutxiago, zerbitzu hori publikoa bada (administrazioak eskainitakoa, alegia): janariaren kalitateak eta egokitasunak (hau da, tokiko ohitura gastrono-

mikora lotuta egoteak) eta ingurumen irizpideek, gutxienez, alderdi ekonomikoaren pareko garrantzia izan beharko lukete. Azken finean, pertsonen elikaduraz ari gara. Gainera, jantoki kolektiboen hornidura tokiko ekoizpen ekologikoarekin lotuta hiru helburu lortzen ditu administrazioak. Lehenik, eskaintzen diren otorduen kalitatea bermatzen du, eremu hurbilean ekoiztutako lehengai ekologikoak baitira freskotatutakoak eta kalitatearen bermerik onenak. Bigarrenik, tokiko lehen sektorea bultzatzeko dauzkan baliabideak egokiro aprobetxatzen ditu, bere eskumenekoak diren zerbitzuak eta nekazaritza ekoizpena uztartuz. Hirugarrenik, planteamendu osoa gertutasunezko harremanetan eta ekoizpen-eredu ekologiko eta jasangarri batean oinarrituta, ingurumenaren zaintzarako baldintzak betetzen ditu. Horrez gain, eskola-jantokiak, aipatutako alderdi guztiez aparte, badute beste funtzio bat eta hori da neska-mutilei elikatze-ohitura osasuntsuak erakustea. Gure kultura gastronomi-

koaz horren harro gauden herri honetan, argi dago heziketa horrek mantenugaien piramideak betetzeaz haratago joan behar duela, eta gertuko elikagaietan, sasoiatuen eta ekoizpen ereduaren ezagutzan oinarritu beharko lukeela.

Zein da egoera EAEko eskola jantokietan? Bada, jantokien kudeaketa arautzen duen 2000. urteko martxoaren 22ko Aginduan ez dago menuen osaketari buruzko aipamenik, Munduko Osasun Erakundeak ezartzen dituen proteina, zuntz, gantz eta azukre kopuruen betearazpenaz haratago. Tokiko elikagaien erabilera ez da planteatzen, ez Aginduan, ezta kontratazioaren baldintzak ezartzen dituen AMH/01/11 Txostenean ere. Are gehiago, Aginduak ezartzen du kudeaketa eredu bakarra “Zuzena” dela, hau da, catering enpresa handi batek hartu behar duela zerbitzuaren arduraren. Handi esaten da, baldintza pleguen arabera egunean 6.000-8.000 otordu prestatzeko ahalmena izan behar duela enpresa horrek (egun, zazpi enpresa ardu-

ratzen dira EAEko eskola jantokietan egunero ematen diren 92.000 otorduek prestatzeaz). Zenbakiei erreparatuta, pentsatzekoa da enpresa bakoitzak hainbat tona elikagai kudeatzen dituela astero. Erabat zentralizatuta dagoen antolamendu horretan, euskal nekazari eta abeltzain ekologikoek eta beraien ekoizpen txikiak ez dute lekurik. Esleipenean, irizpide ekonomikoek dute indar handiena, nabarmen gainera.

Badira, ordea, gertuko baserriarrek haren eremuan dauzkaten eskola-jantokiak, beraien menuak sasoiatuen doitu dituztenak, zerbitzuaren kudeaketarako ingurumen irizpideak lehenesten dituztenak eta hezkuntza-programaren baitan txertatuta daukatenak. Kudeaketa propioa daukaten jantokiak sistema publikotik kanpo daude, bai ikastetxe pribatuak direlako (Ekolapiko proiektuaren baitan dauden zazpi ikastetxeak, kasu), edota, publikoak izanik, administrazioaren laguntzetatik kanpo daudelako, 2000. urteko Aginduan baldintzak ez dituztelako betetzen (ez dutelako beraien sukaldearen kudeaketa catering enpresa handi baten esku utzi nahi izan).

Soka luzea daukan gaia da eskola jantokia. Indarrean den Agindua ezarri zenetik, hainbat eragilek egin dituzte araua aldatzeko aldarriak, EHIGetik hasita ENEEK-eraino. 2014ko hastapenean, eragile askok (EHIGE buru zutela, VSF-Herrien Bidezko Elikadura, ENEEK, EHNE Bizkaia, Ekolapiko eta Ekoizpen Urduña) lege besteko proposamen bat luzatu zioten Hezkuntza Sailari, aipatutako Aginduan, kudeaketa “zuzenaz” gain, ikastetxetako sukaldearen eta jantokiaren kudeaketa propioa egiteko aukera txerta zezan. Eskariak ez du erantzunik jaso, baina igarotako tartean itxaropenerako albisterik egon da. Iragan ekainean, Eusko Legebiltzarrak lege besteko beste proposamen bat onartu zuen, EH Bilduk aurkeztuta: 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan lau proiektu pilotu abiaraziko dira EAEko lau ikastetxetan, jantokien kudeaketa propioa aztertzeko, eta bertoko produktuen eta elikagai ekologikoen erabilera probatzeko. Jaurilaritzak oraindik ez du zehaztu proba hauek non kokatuko diren, baina garbi daukagu bertoko elikagai ekologikoak haurren menuetan txertatzea ez dela garestiago aterako. Ekolapikoren esperientziak, Larrabetzuko eskolakoarenak eta Erroman (Italia) egunero ematen dituzten 100.000 eskola-otorduek —lehengaien %85 Italian ekoiztuak dira, eta horietatik %69 ekologikoak— hala erakutsi dute.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua



Gorka Zozaia
Kimikaria

Arimen gaueko udatxoa

Enneee, zelako parrastada jasaten ari garen udazken bero honen harira! *Veroño* ere bataiatu dute gaztelaniaz. Ezbairik gabe, udazkenean bero egiteak hedabideen estaldura osoa behar du, tenperaturaren datuak alderatzeko, osasunerako ondorioez ohartarazteko, fenomeno harrigarri honen zergatietan sakontzeko... Ez dakit egunotako beroak baino gehiago lelokeria zaparrada horrek ez ote didan eragin buruko mina! Eguraldiarena, noski, beti da jendearen burua kakazteko aitzakia ona... edo alderantziz, nahi bada; isilune deserosoak gai hutsalekin –baina informazio onenarekin– betetzeko irrikaz diren datu kontsumitzaileen pentsatuz egiten dute lan ordainezin hau hedabideek. Tira, gortinak astintzearen bada ere, inoiz ez da soberan eguraldia berrietan.

Nik ere, nola ez, aukera profittatu nahi dut «udespuela» honen gaineko informazio apurak konpartitzeko. Akaso igogailuko elkarrizketan ez da denborarik izango jakintza hau konpartitzeko, baina tira, inoiz ez dago soberan gauzak zergatik gertatzen diren jakitea. Sakontzeko batere asmorik gabe, gainetik azalduko dut, beraz. Poloko eta hegoaldeko (tropiko-azpikoa, Saharako labetik datorrena) aire masa handiak lehian izaten dira urtean zehar; udan, hegoaldekoak gailentzen dira eta neguan, aldiz, polokoak. Lehia hori udaberrian eta udazkenean ageri da nabarmen, eta horregatik gertatzen dira tenperatura aldaketa bortitzak. Aurtengo uda gehiago luzatu izana (azken hamarkadako joerari eutsiz) berokuntza globalarekin lotu liteke, eguzkia faltan izaten hasi arren, hego haizeak tenperatura igoera orokorra lagun baitu lehia horretan.

Hau esanda, berehala hasiko da baten bat «klima» aldaketataaaaa» histerikoki oihuka, eta ez nuke nahi euforia hori kon-

partitu. Ikusi berri dut EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko EKAIA al-dizkariaren azken alean ere gaia tentuz aztertzen dutela, eta koordinatzaileak baieztatzen duenez, «klima aldaketari guztiaren errua leporatzeko ohitura txarregia dugu». Ez dut hemen, eta berriro, meloi hau irekiko, baina, egunotako beroari dagokionez, zera esan dezaket:

1.- Berri batean jasotzen denean *ezdakitnon* ez zela halako berorik erregistratzen *ezdakitnoiztik*, tortillari buelta ematen diot nik: «Kontxo! Orduan, *ezdakitnoiz* (bota 150 urte) bero bera egin zuen!». Esan gabe doa berrehun bat urteko erregistro eskasa dugula...

2.- Zer esaten digute udatxo edo «*veranillo*» izeneko bero-boladek? Izan Mie-

lena edo Martinena, irailetik azarora maiz daude horrelakoak, hainbeste, non tradizio linguistikoa ere baden, tenperatura erregistratzen hasi aurretik kulturen zizelkatua.

Arazoa baina, ahanztura da; alegia, behinola kulturen zizelkatutakoa zaparradak nola higitzen duen eta mundializazioak gainetik nola margotzen duen. Gaurko eguna dugu horren lekuko. Gehienontzat, «Santu Guztien Eguna» dena, gero eta gehiagorentzat «Halloween» izeneko jai eguna da, kanposantuekin bainoago moztaroekin, limosnarekin eta kalabazekin loturiko ospakizuna. Oroitzen dut olatua iristen hasi ahala arrotz iritzi geniola. Bada, Halloween, literalki, Santu Guztien Bezpera, Euro-

pako leku askotan ospatu izan da, baita hemen ere. Gure aiton-amonetako batzuek ezagutu dute moztarotu, etxez etxe eskean ibili, eta kalabazak ostu, hustu eta barruan kandela bat jarrita bide bazterrean uzteko ohitura. Alta, bi belaunaldiren ondoren, nik usaindu ere ez dut egin, Oier Araolazaren artikulua bat irakurri nuen arte. Paradoxikoki, apika neolitikotik zizelkatzen hasitako arrastoa kristautasunaren margoz estali zena, orain, mundializazioak ekarri digu bueltan, kontsumismoaren zelofanean bilduta.

Nola ez, beste behin jausten naiz zutabetxo honetako zulo beltza den jakintzaren eraikuntzaren (edo zientziaren) hausnarketa putzura. Apenas dut jada bertan igeri egiteko lekurik, eta datuen zaparradaren eta informazioaren erronkan beste batean sakonduko dut. Bitartean, alzheimer kulturen honen aurka gure onena ematea dago-kigu, bestela, konturatzen garenako, «Halloweeneko klima aldaketa» izenburua jarrita, *veroñoa* delakoa izango baitut hizpide lerrootan, urtaro hau udaren azkena, udazkena, dela ahaztuta. •



Asteon emakume bat hondartzan.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Kattalin Miner

Injustiziaren postontzi zorionekoak

Bankuek lepo dute etxeko postontzia, ez dute lekuri uzten zure maitasun gutunentzat» dio Morauk bere azken diskoan. Eta zenbat botatzen ditugun faltan eskutitz eta postalak. Zenbatetan gogoratzen dugun nostalgia kolektiboz etxeko postontziaren funtzio hura, gaur egun emailek, telefonoek eta whatsappak jan dutena. Desagertu dira gehiengoarentzat, propaganda eta bestelako interes apurreko gutun-azalen artean azaldu ohi ziren sorpresa txiki horiek. Desagertu, postariaren txirrina entzuteaz bat, postontzira jaisteko irrikak, desagertu, gehienentzat «postal bat bidaliko dizut» bat esandakoan benetan hura jasotzeko esperantzak.

«Idatzi e?» esaten genion elkarri udalekuetako azken egunetan, eta zenbat maitasun istoriok gainditu ote zuten desafio hura. Zenbat laguntasun probintzianok iraun gutun-azalen bidez.

Bada ordea herri honetan tamalez milaka kilometro zeharkatzen duen gutun-azalik oraindik. Bada oraindik «idatzi e?» eta «postal bat bidaliko dizut» betetzen duenik. Bada oraindik distantzian biziraute duen laguntasun, ama-alaba harreman eta maitasun istoriorik; gehienak ohiko jendearentzat gutun-azal irudikaezinak direnetan sartzen direnak.

Halako eskutitz ugari heltzen da Euskal Herriko postontzietara oraindik, eta gozoa baino gazia den egoeran ere «Is not Spain» bat daraman gutun-azalak bihotz-berritzen gaituzte. Halako asko heltzen baita oraindik, gehiegi agian. Txukun marraztutako gutun-azalak dituztenak, koloredunak, eta beste batzuk zuri-beltzak. Batzuetan lodi-lodi, argazki eta guzti izan ohi dutenak bere barnean.

Pentsatu ohi dut, hartzaile eta igorleaz gain, kanal bidea egiten duen postariak ere pozarren banatuko dituela banketxez harago doazen eskutitzak eta haiek ere faltan botako dituztela geratzen diren azken manuskrito hauek (espero dezagun berandu baino lehen).

Arraroa baita estankora zigarroak erosteaz gain seilu sorta bat erostera joatea. Are arraroa zeure burua orain bizi duzun hirian postontzi horiak non dauden bisualizatzen saiatzen ikustea. Arraroa da zentzuga-

bekeria krudelenak barnebiltzen duen edertasuna, gutun baten zain igarotzea izatea. Eta hala ere, zorioneko dugu gure burua oraindik halakoak espero ditugulako.

Zure urtebetetze eguna heldu da eta inertziak mugikorrari begira igaro dut eguna. Nola deitu, nola bidali, nola esan 'zorionak', nostalgiak bakarrik ulertzen ez dituen postontzi horietatik at. Nola bidali, nola deitu, nola esan zure urteak ospatzeko, ez bada telefono zikin honetatik. Eta zorioneko topatu dut nire burua berri, gutun-azala itxiaz bat.

Izan ere, badira gutun-azaletan baino kabitzen ez diren gauzak. Uneko bat-batekotasunetik harago joango direnak. Idatzi ahala, itzuliko ez direla dakizkizun hitzak. Ondo pentsatutakoak eta pentsatu gabeak. Postontzi horian askatzeaz bat hasperentxo bat ateratzen dizutenak.

«Munduan badabil orain maitasun apur bat posta azal txukunetan postontzietan barrena. Zorionekoa da hitz goxo baten truke beste inor itauntzen ibili behar ez duena»

Badira gutun-azaletan bakarrik bidali daitezken gauzak. Irriak. Zirriak. Itsas usainak. Besarkadak. Maitasun Iraultzaileak. Sekula itzaltzen ez diren argiak. Eztabaida politikoak, eztabaida petikoak. Bai, poema luze-luzeak. Besapeko usainak. Txokolatezko musuak. Bestelako musuak. Lokartzerainoko besarkadak. Lokartu ezin duzunerako ipuinak. Gorak eta beherak. Antsiak. Ametsak. Inausiak. Imajina ezin duzun hori azaltzen duten marrazkiak. Arramazkak. Zorionak eta zori onak.

Oso zorte oneko dut nire burua, eta hala, bolumena igo diot kantuak erantzuna eta oartzuna itzuliko dizulakoan: «Munduan badabil orain maitasun apur bat posta azal txukunetan postontzietan barrena. Zorionekoa da hitz goxo baten truke beste inor itauntzen ibili behar ez duena». Zorionekoak gu. •

AUORE MARTIN

IRAGANEKO ZULOARI

ETORKIZUNA JOSTEN

Urte askoan politikan eta militantzian aritu da. Orain, birziklate bidean ote dagoen iruditu zaigu, martxan jarri duen jostundegiko arropa bezala

Jon GARMENDIA

«Galtzear den jostungintzari eutsi, eta enplegua sortu nahi dugu»

E rrobik zeharkatzen duen Lapurdiko herri xarmagarria da Kanbo, batzuentzat, Edmond Rostanden lur-reko paradisua, “Cyrano De Bergerac” idatzi zuen poeta antzerkigilearena; besteen-tzat, terma eta bainuetxe inguru-nea da, eta burua zuritutako gazte askorentzat, aldiz, herri historikoa, 2.000on Bidasoaren bi aldeetako gazteak elkartu baitzi-ren bertan, Gazte Topagunearen kariatara, gazte mugimenduaren batasuna aldarrikatu eta indar-tzeko xedez. Urte honetako apiri-laz geroztik, han dago Orratzetik Hari elkarte, filosofia alternati-boekin sortutako jostunen elkar-tea, enplegua sortu, ofizioa ikasi eta irakasteko asmoarekin. Herri-ko Etxetik eta Posta zerbitzutik hurbil, erdigunean kokatutako etxe bat da elkartearen egoitza,

eskuz egindako panelak ematen du ongi etorria, eta han dago ida-tzita etxe horretan zein duten lanbide: Joste-sorkuntza-birzikla-tze-atelierrak. Aurore Martin da elkarte horren sortzaileetariko bat, eta berarekin jarri dugu hi-tzordua, gaur egun zertan dabilen jakiteko.

Maulen sortua da Aurore, orain dela 35 urte, Zuberoan. Egun, Eiheralarren bizi da, hala ere, Na-farroa Beherean, eta Kanbon egi-ten du lan, Lapurdin; Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetako errepi-deak buruz ezagutzen ditu ia, ba-tetik, geografikoki eremu ttipia delako, eta, bestetik, ohitura han-dia dutelako lurrotako biztanleek alde batetik bestera ibiltzeko. Ha-la bada, Aurorek gaztaro osoa eman du harat-honat: «Politikan aritu naiz ainitz urtez, militan-tzian, herri batetik bestera joan-ji-nak egiten. Jateko lanak deitzen



Argazkiak: Sylvain SENCRISTO

ditugun horietan ere ibili izan naiz, ostalaritzan eta halako gauzetan». Hizketan hasi bezain las-ter aitortu digu aldatu egin dela bere bizitza, eta etxe horretako arropa batzuk bezala, bera ere birziklatze bidean ote dabilen iruditu zaigu, bere nortasuna berrasmutzen balego bezala, baina ez, aspaldiko kontu baten segida da oraingo hau. «Gaztetan, lau urteko formakuntza bat pasa nuen, jostun izateko; ikasketak egin ond-otik Ipar Euskal Herrian lan egi-tea nuen helburu, ikasitakoa praktikara eramateko, hori lortze-ko, ordea, hemendik joan behar nuen, eta ez nuen halakorik nahi. Urteak joan dira geroztik, hama-rretik gora». Eta josi gabe urte ho-riek guztiak egon ondoren, prak-tikarik galdu ote duen galdetu diogu: «Oker ez banaiz, badira 13 urte formakuntza amaitu nuela, baina etxean beti segitu dut gau-zak egiten, argi da nekienetik zer-bait galdu dudala, baina beste gauza asko bezala ahanzten ez den zerbait da hau, berriro hasi eta segidan etortzen zaizuna».

ORRATZETIK HARI ELKARTEA

Ez da jostun paperean ari, haatik, sentitu egiten du, pasioa ageri du langintza honi lotutako kontuak mahaiaren bestaldetik adierazten hasten denean, eta bere oroitzapen horiek izan dira egungo zereginaren abiapuntu: «Lan desberdinetan hainbeste urte pasa ondoren, gogoia neukan nire ametsa asetzeko, plazer hartzen baitut josten dudanean, hari eta arropa artean nabilenean. Donibane Garazin hasi nintzen informazioa biltzen, etorkizun hurbil batean zer egin nezakeen jakiteko, eta gaualdi batean Maiderrekin ukan nuen gaiari lotutako elkarriketa bat, biak ondorio berera ailegatu ginena, gainera, eta galdera pausatu genion elkar-ri, zergatik ez dugu guk munta-zen jostunen kolektibo bat?».

Aurorek aipatzen digun Mai-der, Etxeberri da abizenez, Azkai-nen sortua, eta 1990eko hamar-kadan Piztu elkartearen partaide izandakoa. Ikusgarrien sorkuntza eta trukaketak bultzatzeko elkar-tea zen hura, eta besteak beste, Euskal Herria Zuzenean jaialdia jarri zuten abian.

«Gaztetan, lau urteko formakuntza bat pasa nuen, jostun izateko. Ondotik Ipar Euskal Herrian lan egitea nuen helburu, ikasitakoa praktikara eramateko, hori lortzeko, ordea, hemendik joan behar nuen, eta ez nuen nahi»

«Jostunen egoera larria zela ondorioztatu genuen, eta ez zela aterabide nahikorik haientzat, ez indibidualki, ezta kolektiboki ere. Isolamendua aipatzen genuen; adibidez, telefono aurkibidean ez dago jostunen atalik»



Biek ala biek proiektu bera bu-ruan ukanik, ez da harritzekoa Aurorek eta Maiderrek elkar ongi hartu izana. Bestalde, herriari es-tuki lotuak izanki, eta herriaren-tzat haien ahalegina eskaintzen jardun ostean, irtenbide indibi-dualaren xerka aritu orde, eta urrutira joan beharrik izan gabe, proiektu alternatibo eta kolekti-boa osatu izanak sortzen du ha-rridurarik guttien. Bide horretan, lehen urratsak azaltzea eskatu diogu Auroreri: «Maiderrek for-makuntza egina zuen. Argitu be-har da Ipar Euskal Herrian bi gu-ne daudela jostun formakuntza egiteko, Donibane Lohizunen bat eta Baionan bestea, helduentza-koa da lehena eta gazteentzako li-zeo profesionala bigarrena, baina, behin bukatuta, ez dago lan es-kaintzarik sektorean. Inportantea da hau, batez ere, ulertzeko zerga-tik sortu dugun gure proiektua. Maider etxean aritzen zen josten, eta lau pareta arteko bakardade-an josten aritzea biziki gogorra dela aipatu nahi nuke, hau da, bu-rua etengabe darabilkizu buelta-ka. Jostea kreazioa da bestalde, eta talde batean aritzeak dena errazten du, elkarrekin partekatu daitezke ezagutzak, bakoitzak ba-duelako besteak ez duen jakintza bat, eta batez ere trikimailuak, zailtasun eta oztopoei aurre egi-teko, edo produktu bat garatzeko. Bestela, iritzi desberdinek indartu egiten dute produktuaren proze-sua, zalantzak uxatzeko manera bat da, eta aterabide bat xerkatze-ko modurik egokiena».

Galderari izkin egin balio beza-la sentitu da momentu batez, bai-na ez dugu galdera errepikatzeko denborarik ukan, hizketan segitu baitu Aurorek: «Maiderrek ezagu-tzen zituen jostun batzuk, eta haiei deitu zien, 10 bat denera. Bildu ginen guztiak, bakoitzak be-re xedeak adierazi zituen elkartze hartan eta seik egin genuen au-rrera proiektuarekin. Horrela sor-tu genuen Orratzetik Hari elkar-tea orain dela urte eta erdi inguru. 27-35 urte artean gabilta denak, eta elkartekideek bazuten beste lanbide bat honetara bildu aitzin, beraz, errekonbertsio mo-duko bat da. Egitura bat sortu be-har genuen lehenik eta behin, eta Bordelen ibili ginen ikasteko as-moarekin, Tolousen gero, baita Bilbon ere. Parisekoekin harre-manetan sartu ginen, bestalde... guk sortu nahi genuenaren gisa-ko elkarrekin nola funtzionatzen zuten ikasteko enbeia geneukan, zein egitura juridiko zeukaten eta zein zen guk behar genuena, hau da, kooperatiba izan edo elkar-te... eta lagungarria izan zitzaigun, ohartu baikinena badirela ehunka proiektu alternatibo, hau da, gure filosofia partekatzen dutenak eta gu baino lehenago sortuak. Mun-du bat dago hor kanpoan».

Kuriositatea piztu digu funtzio-natzeko manera desberdin ho-rien aipamenak, eta ezagutu di-tuzten proiektu horietakoren baten kontatzea eskatu diogu «Adibidez, Biarnoan, Arudy he-rrian, baserrien eremu galduan, alimaleko enpresa zaharkitu bat

dago; jabearengana joan ziren ko-lektibo bateko kideak, eta obrak egitearen truke espazio hori utzi zien jabeak. Gaur egun, 25 artisau elkartzen dira han, zurgintzan ari direnak, poterian, ehuntzan...bai-na baita antzerkian eta sorkuntza kulturalean ari direnak ere. Alfe-rrik galtzen ari diren eraikinak baliatzeko manera bat da, eta ate-rabiderik ez luketen artisauek au-kera bat ukaitekoa ere bai. Herria-ri bizitza eman, eta herritarrei ere bai».

Hizketan Biarnoraino joan ga-renez, urrun samar, etxerako bi-dea hartu dugu berriro, josteko makina batzuen artean kafea har-tzen dugun bitartean. Bidenabar, harrigarria iruditu zaigu hutsik zegoen etxe honen paretek zer nolako kolorea hartu duten Orra-tzetik Hari elkartekoen sorkun-tzekin, eta beren proiektuaren hastapenetara eramane gaitu be-rriro Aurorek. «Errobi inguruko herrietan aurkeztu genuen gure proiektua; Herriko Etxeei egoitza bat xerkatzen genuela adierazi genien. Bestalde, jostunengana joan ondotik, erradiografia erreal bat ukan genuen eta hura baliatu genuen errealtatea agertu ahal izateko, zehazteko zertan zen gaur egun jostungintza. Jostunen egoera larria zela ondorioztatu genuen, eta ez zela aterabide nahikorik haientzat, ez indibi-dualki, ezta kolektiboki ere. Isola-mendua aipatzen genuen; adibi-dez, telefono aurkibidean ez dago jostunen atalik, sortzaileen arlo-an ageri dira bakan batzuk, baina



ez berezko izenarekin. Jostunen sindikatua ez da gehiago Baionan, Paben baizik, eta edozein arazo duzularik, hara joan behar duzu. Honela, Kanboko herriko etxea izan zen erantzunik onena eman ziguna. Eta gure ideia hemen gauzatu dugu, tresneria dugu orain, alokairu apal bat, eta mutualizazio baten bidez beste jende bati utzi ahal diogu guztia-
ren erabilpena».

DENDA, TAILERRAK, ETA IKASTAROAK

Etxe osoa baliatzen dute elkarte-koek, biltzen joan diren arropa metatu dute ganbaran, azpiko zati batean lan egiteko espazioa egokitu, eta beste zatian haiek sortu, edo eraldatu dutena saltzeko denda ireki dute. «Hasieran pentsatzen genuen bi sare eduki beharko genituela, bi iturri, bata partikularra eta bestea enpresa mundukoa, arropa lortzeko eta hondakina bereizteko, bazter utzitako arropa eta soberakinak berreskuratu ahal izateko. Publizitaterik egin ez, eta eskean ibili gabe, ordea, ohartu gara arropa piloa bildu daitekeela, uste genuena baino askoz gehiago; 4 urterako lana dugu orain arte han eta hemen bildu dugun guztia-

kin». Behin arropak bilduta, lantze prozesua hasten da, eta nola antolatzen diren galdetu diogu, nahiko lan badelako saltzea, sortzea eta ikastaroak ematea, beraz, lehentasuna zerk duen jakin nahi genuke. «Denak du garrantzia guretzat, sortzeak, ikasteak, eta irakasteak. Ez gara marka bat sortzen ari, produzitzeko eta kontsumitzeko bide desberdin batzuk proposatzen baizik. Zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugu hemen. Bada sorkuntzarako zerbitzua, adibidez, eta dendan saltzeko aukera ere ematen dugu, artisauei, beren produktuak sal ditzaten gune bat eskainita. Agian, jantzi berezi bat da zuk nahi duzuna, ezkontza baterako propio edo ospakizun baterako propio. Zatoz hona eta neurrirra eginen dizugu gustuko duzun hori. Jantziak konpontzen ditugu, bestalde... horiek guztiak produkzioari begirakoak dira. Elkarre bat garenez, eta transmisioan aritu nahi genuenez, ikastaroak ematen ditugu, tailerrak sortzen ditugu, jakinik jostun ofizioa galtzen ari den zerbait dela. Sei makina ditugu zerbitzu librean, eta hilean 40 euro ordainduta nahi duen orok erabil

ditzake. Jostunentzat makina profesionalak ditugu, beste elkarreentako animatzaileak ere baditugu, hilean bi aldiz ehuntze tailerra muntatzen dugu, transformazioa edo kustomizazioa lantzeko tailerrak ere eskaintzen ditugu; adibidez, galtza pare bat eskuko zorro bihurtzeko prozesua ikasteko. Trikotatzeko kurtsuak ere badira, kakorratzare-nak....».

Dendara joan gara orduan, eta han ageri dira behin kamiseta zirenak, orain soineko luze bilakatuak, edo kaltzontzilo, baita kulero ere; paparrean erakusgai zegoen irudi edo esaldia ipurdia-
ren partean ageri da aldaketarekin, edo atalik intimoena estaltzen duen aitzineko zatian, bestela. Levis galtza urdin argi batzuk ikusi ditugu gero, eskuko zorro bihurtu direnak oraintsu, baina galtza izan zirela antzematen zaiela beti ere. Hau izanen da lehen aipatu digun transformazioa. Kamiseta maukekin egindako ileko zintak, haurrentzako jantziak, jertseen zatiekin sortutako eskularruak, kortinekin egindako gona luzeak... denetik dago salgai, eta horiek guztiak zer nola egin asmatzeko gogoeta

dezente egina dutela aitortzen diogu, baina «guk ez ditugu asmatzen horiek guztiak, jakina; Internetean bilatu eta handik ateratzen ditugu ideia anitz», erantzun digu segidan. Hau guztia salduta duintasunez bizi ote daitekeen galdetu diogu gero. «Zer gertatzen den gure lanarekin? Hemen eta orain, ezinezkoa dela jostun gisa bizitzea, biziki garestia delako egiten duguna, edo bestela, jostetik bizi direnek haien produktua luxuzko denda batzuei saldu behar dietelako. Koreatik, Tailandiatik, oro har, kanpotik heldu diren jantziak biziki merkeak dira; gaur egun, bost eurotan eros dezakezu prak pare bat, eta soineko bat hamar eurotan, beraz, lanean ari denak xentimo gutxi batzuk irabaziko ditu salmenta horrekin, eta gure gizartean ezinezkoa da ateratako xentimo horiekin bizitza aurrera ateratzea. Kaltzontzilo edo kulero bat hiru eurotan atzeman dezakezu, eta guk ordu bat, edo ordu eta erdi behar dugu halako bakar bat egiteko. Beraz, lanean iragandako denborari etekin bat ateratzea biziki zaila da. Gure produktuetan, jantzia egiteko behar izan den denbora markatzen dugu, horrela, erosten duenak salneurri hori justua denentz neur dezan».

Eskuetan media beltz eta marroiak hartuta lurreko tapisa egiten du hizketan segitzen duen bitartean Aurorek. «Ehunak lortu, ordaindu, eta horri guztiari lanorduak gehituz gero, ezinezkoa da kalitatezko arropa prezio merkean ekoiztea hemen. Horregatik bururatu zitzaigun bigarren eskuko arropak jaso eta beste erabilera bat ematea. Bigarren eskuko arropa esaten diegu, baina gehienetan berri-berriak dira. Bestalde, bagenekien biziki zaila izanen zela proiektu hau aurrera ateratzea, baina ilusioa dugu, eta aitzina segituko dugu, konpromisoa baita gure helbururik lehena, lana sortzea dugu xede, enplegua sortu nahi dugu, ia galtzear den jostungintzari eutsi. Horretarako, badakigu hilabete asko dirusaririk gabe pasa beharko ditugula, baina iragaten dugun egun bakoitza, azken helburua lortzeko garaipen bat da».



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BETI ZARAMATE ALDEAN, HODEI

Egunak, orduak eta segunduak kontatzen ditu zure jendeak Hodei. Denbora denbora da, eta ez du balio hutsune batek sortzen duen minaren larria neurtzeko. Baina denbora kontatzen dute, mina ezin dutelako neurtu. Zurekin pasatako uneek betetzen dituzte zure hutsuneak; zurekin bizitakoen oroitzapenak betetzen dute zure aulki hutsa. Beti zaramate aldean, erantzi ezin den motxila baita zure faltak sortzen dien egozina. Presentzia ez baita presente dagoenaren itzala, ez dagoena aldean daramazunaren sentsazio epela baizik. amagoia.mujika@gaur8.info

Adur erreketan igeri

Maider Iantzi

Ahotsak gero eta urrunago, ulergaitzago, ametsekin nahasten dira. Eta burua, ezin tente eutsi, atzera doa. Ahoa irekita, adurra bere bidea egiten hasi da, gorbata bustiz. Erreka bat jaio da trajean.

Kamera abil batek bete-betean harrrapatu du begiak zabaltzeko eta lehenbiziko nahasmen horretan –non nago? zein egun da?–, eta geroko disimuluan ere bai.

Ingurura begiratu ea inork ikusi duen, lepo mindua zuzendu, mikrofonoan dagoenaren hitzak aditzearen itxurak egin... Ze barregarria diputa-

tuaren trantzea! Eta politikari atrakatzaleei buruzko txisteak...

Ahoa zabal-zabalik, ozen egiten du irri 24 urtez Pujol familiaren lapurretak ikertzen ibili den pertsonak –zergatik atera diren argitara hain berandu galderari hala erantzun dio: «Bazen garaia!»–. Irri bitxi horietakoa du, kutsakorra, eta guk ere ajarika bukatu dugu, gizonak irri noiz egingo, gu ere bestara batzeko. Eta ongi pasatu dut, baina erran behar dut aspertu naizela egunero iruzurti esku luzeak ikusten, eurekin gosaltzeko, bazkaldu eta afaltzeko.

Umorea egiten da haiekin, baina egiatan, umore gehiago egiten dute

haiek gurekin. Eginak egin, eta argitaratuak argitaratu, ez baitaie deus gertatzen. Barkamena eskatu eta eskuak sakela beroetan sartu.

«Barkatu», erran du Mariano Rajoyk ustelkeria onartuz. Zurbil, ahituta, irri gutti presidente espainiarraren aurpegian, gainbeheraren ispilu, leherketaren beldur. Ongi etorria eztanda, eta instituzioen ordezkariak beren onena emateko duten ardura oroitzeko. Baita gurean ere, adur erreketan igeri egitera ohituta, beren ametsetik ernatu eta gure ahotsa aditzea eskatzen ahal diegun guttienekoa dela atzentzen zaigulako. •

TEKNOLOGIAREN ARRISKUAK

Smartphoneak dira haurrek Internetera sartzeko darabilten bide nagusia

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Egun, 9-12 urteko haur europarren %28 Internetera smartphone baten bitartez sartzen da. 2010. urtetik asko aldatu da panorama. Orduan, ingurune aberatsenetan bizi zirenek baino ez zituzten eskura smartphoneak eta, orain, aberatsen eta pobreen arteko arrakala digitala murrizten ari da. 13-16 urteko gazte gehienek smartphone bat daukate.

Haurrek ezagutzen dituzte smartphoneak. Orokorrean, gustatzen zaie gailuekin saltsan aritzea eta abileziaz moneiatu ohi dituzte.

EU Kids Online erakundeak ikerketa bat egin berri du smartphoneak haurrentzat dakartzan arriskuak zeintzuk izan

daitezkeen ikertzeko eta ondorio nabarmena izan da gero eta haur gehiagok dituztela eskura telefono adimentsuak. Ikerketak 250.000 neska-mutiko izan ditu kontuan eta 2010. urteaz geroztik smartphoneak eskura dituzten haurren kopurua dezente handitu dela ondorioztatu du. «Duela lau urte, ingurune aberatsenetan bizi ziren eta baliabide gehiago eskura zituzten

9-12 urterekin, Europako gero eta haur gehiagok daukate smartphone bat eskura. Eta 13-16 urtekoen artean, gehiengoak smartphone propioa dauka.
THINKSTOCK

haurrek zituzten smartphoneak inguruan. Gaur egun, asko zabaldu da gailu horien erabilera eta berdindu egin da haur aberatsen eta pobreen egoera smartphoneei dagokienez». Alegia, aberatsen eta pobreen arteko arrakala digitala murrizten ari da.

Datu horri tiraka, gaur egun, Europako 9-12 urteko haurren %28 Internetera smartphonearen bidez sartzen dela ikusiko dugu. Hori da sarerako erabiltzen duten bide nagusia. Eta Europako 13-16 urteko gazteen gehiengo zabalak smartphone propioa dauka.

BIDE ARRISKUTSUAGOA

Internetera smartphone bidez sartzeari arriskuak da beste bide batzuetatik sartzeari baino, izan lehenagoko telefono bat, ordenagailu eramangarri bat edo mahaiko ordenagailu bat. Hori ere jarri du mahaian gainean aipatutako ikerketak. Zergatik? «Arrisku gehiagoren aurrean jartzeaz gain, smartphonea erabiltzen duten haurrak maizago sartzen direlako Internetera eta ekintza gehiagotara iristeko modua dutelako».

Bide horretan, ikerketak nabarmendu du haur txikiagoek helduagoek baino arrisku gutxiago izan ohi dituztela, «baina Interneten esperientzia desatseginen bat gertatuz gero, eragin handiagoa izan ohi du haur txikiagoengan». Hartara, gurasoek gertutik zaindu beharko lukete txikienei smartphonearekin zer egiten duten. «Zenbat eta txikiagoa izan haurra, orduan eta handiagoa izan beharko luke gurasoen inplikazioak», nabarmendu dute.

Arazoak edo arriskuak askotarikoak izan daitezke, haurraren eta smartphonea erabiltzeko moduaren arabera, baina dagoneko igarri dute oso kontuan hartu beharreko zenbait arrisku berri daudela; «adinaren eta generoaren arabera, arriskuak desberdinak dira, baina gailu teknologiko berriek arrisku berriak dakartzate; geolokalizazioa edo ezagutzen ez dituzten pertsonekin harremanetan jartzeko erraztasuna, kasu».



Internet, beste gauza guztiak bezala, berez ez da arriskutsua. Erabilerak egiten du arriskutsu edo onuragarri. Smartphonea da, aipatutako ikerketaren arabera, Internetera sartzeko bide arriskutsuena haurrentzat. «Smartphonearen bidez aukera gehiago dauzka eskura haurrak eta, ondorioz, arrisku gehiago». Hartara, ikertzaileek garrantzitsutzat jotzen dute smartphone horiek beti zain-tzapean erabiltzea, ez baita arriskurik gabeko denbora-pasa.

Era berean, ikerketan parte hartu duten adituek software-en diseinatzaileak, enpresa teknologikoak eta komunikazio arloan dabiltzanak ere hartu dituzte jomugan eta mezu hau helarazi diete: jar ditzatela martxan gurasoen kontrola bultzatzen duten mekanismo errazak, jar ditzatela bideak haurrek Internet ahalik eta modu seguruenean erabil dezaten.



AEBetako pediatria elkarte zenbait kezkatuta agertu dira gailu teknologikoek txikienengan izan ditzaketen eraginaren inguruan. Gurasoen kontrolaren beharra nabarmendu dute. THINKSTOCK

HAUR PASIBOAK SORTZEKO ARRISKUAZ OHARTARAZI DUTE

Gero eta nekezagoa da haurrek teknologia berrietara daukaten sarbidea kontrolatzea. Eskura dituzte eta aise maneiatzen dituzte.

Duela ez hainbeste, kezka nagusietakoa izaten zen haurrek telebistaren aurrean denbora gehiegi pasatzen zutela. Orain, haurrek –bi urtetik beherakoak barne– eta gaztetxoek smartphoneekin eta tabletekin daukaten harremanak sortzen ditu kezka eta egonezina gurasoen artean.

Adituek dagoeneko jarri dute galdera mahai gainean: smartphoneak eta tabletak al dira haurren zaintzaile berriak? Haurrek teknologia berriak noiz eta nola erabili behar dituzten jendartearen kezka iturria da.

Kezka hori gure artean suma daiteke, baina baita beste herrialde askotan ere. Duela hilabete batzuk, Japoniako Pediatria Elkarteak telefonoen eta tableten gehiegizko erabilera kontrolatzeko kanpaina bat abiatu zuen, Kanpaina horretan, gurasoei kontrol zorrotzagoa eta kanpoan gehiago jolastea sustatzea aholkatu zien.

Nabarmentzen dutenez, pantailen gehiegizko erabilerak ondorioak ekar

ditzake haurren garapenean, haur pasiboagoak sortzeko arriskua baitago. Gainera, beste pertsona batzuekin harremana eta interakzioa gutxitzen denez, horrek haurren garapen sozialari ere kalte egiten dio.

Badaude kezkatzeko arrazoi gehiago: gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da jolastu edo ipuinak kontatu ordeztu telefonoak eta tabletak erabiltzea. Ondorioz, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanaren kalitatea okertu egiten da.

Japoniako Pediatria Elkarteak gurasoei aholkatzen die gailu hauen erabilera murriztu dezatela eta denbora gehiago pasatu dezatela seme-alabekin hizketan eta kanpoan jolasean, beren garapenaren mesedetan.

Gailu teknologikoak ekoizten dituzten enpresak parean jarri zaizkie eta beren produktuen defentsan atera dira, «neurritz eta orekaz erabiliz gero», haurren garapenaren mesedetan izan daitezkeela esanez.

Japoniarren atzetik AEBetako pediatrian zenbait elkarte etorri dira eta haurrek eta gaztetxoek smartphoneak erabiltzeko moduaren inguruko aholkuak eman dituzte. Garbi daukate

kontua: hamabi urtetik beherakoek ez dituzte gailu horiek kontrolik gabe erabili behar; 0-2 urtekoek ez dute teknologiarekin inolako harremanik izan behar; 3-5 urtekoen erabilera denbora mugatu egin behar da egunean ordu batera; eta 6-18 urtekoek asko jota egunean bi orduz erabili beharko lituzkete. Hainbat arrazoi eman dituzte muga horiek azaltzeko.

Ez da ona teknologiak 0-2 urteko haurren garapenean gehiegizko pisua izatea. Nabarmendu dutenez, haurren garunaren hazkuntza azkartu dezake teknologiaren gehiegizko erabilerak eta horrek bestelako arazoak sor ditzake: atentzio eskasia, arazo kognitiboak, ikasketari loturiko trabak, jarrera oldarkorrak areagotzea eta autokontrol falta.

Mugimenduarekin eta gorputzaren garapenarekin harreman zuzena duela nabarmendu dute pediatrik. Telefonoak eta tabletak neurririk gabe erabiltzeak haurren mugimendua murrizten du eta horrek bestelako arazoak dakartza luzera: eskola errendimendu eskasagoa, alfabetizazioan arazoak eta atentzio eta gaitasunen murrizketa. Era berean, mugimendua gutxiagotuz gero,

gizentasuna areagotzen da haurren artean eta horrek bestelako osasun arazoak dakartza; diabetesa eta osasun arazoak, kasu.

Loan ere eragiten dute teknologia berriek. Hainbat ikerketak bistaratu dutenez, gurasoek ez dute kontrolatzen seme-alabek noiz eta nola erabiltzen dituzten teknologia berriak. Ondorioz, ohikoa da beren logelan, gauez, telefonoekin eta tabletekin aritzea. Horrek loa eragotzen du eta, ondorioz, eskolako errendimendua.

Buruko gaixotasunekin ere lotzen dira teknologia berriak. Izan ere, zenbait ikerketak nabarmendu dutenez, haurren depresioa eta antsietate tasek gora egin dute teknologi hauek zabaldu diren neurrian.

Haurrek eduki eta irudi bortitzak eskura dituzte telefono eta tableten bidez eta horrek, era berean, jarrera bortitzak susta ditzake txikien artean. Hori ere kezkatzeko arrazoiak da pediatrian ustez.

Eta menpekotasuna ere hor dago. Azken ikerketen arabera, 8 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek artean hamaikatik batek dauzka menpekotasun arazoak teknologia berriekin.

infraganti ALATZNE ETXABURUA

Nahigabeen eta ondo nola heltzen zitzaion jakin gabe eutsi zuen sega lehenengoz orain lau urte; «erabat harrapatu zuen». Gozoak eta gazixeagoak izan diren uneak pasa ditu, baina aurrera baino ez du begiratzen. Segarekin nahikoa ez eta trontzan eta harri tiraketan ere aritu da aurten Alatzne Etxaburua.

Sega lagun berria du; baina denbora gutxian lagun-min egin zaio. Oraindik ere gogoan du orain lau bat urte lehendabizikoz eskuan hartu zuenean ez zekiela ondo nondik eta nola heldu behar zion. «Koinatuak oraindik ere barre egiten du hura gogoratzen duenean, zein trakets heldu nion oroitzen denean», aitortu du Alatzne Etxaburua segalariak.

Tolosan jaioa, herri kirolen giroa ezezaguna zitzaion, harrik eta ezkondu eta Zizurkil bizileku hartu zuen arte. «Jaiak zirela eta, herritarren arteko herri kirol erakustaldia egitea erabaki zuten eta bertan parte hartzeko eskatu zidaten; behiak jezteko edota segarekin aritzeko proposatu zidaten niri eta, zalantzarik gabe, segan hobeto moldatuko nintzela pentsatu nuen, inoiz aritu gabea banintzen ere», oroitu du irribarrez.

Aitzakia horrekin heldu zion segari lehenengo aldiz eta orduz geroztik apenas utzi du zokoratuta. Joxe Gabirondo gazteluar segalari ezagunak erakutsi zion segan egiten jaietako erakustaldi hartarako eta hura pasatakoan ere behin eta berriz deitu zion entrenamenduetara bertaratu zedin. «Presiorik gabe, baina belarra moztu behar zuten aldiro egiten zidan joateko gonbita». Etxaburuak lehen unetik hartu zion gustua belarra moztean sentitzen duen horri: «Ez dakit ondo nola azaldu. Niri segak jarraitzea eskatzen dit; kolpe bat eman eta hura ondo egin dudala ikusteak, bestea ematea eskatzen dit», deskribatu du.

Gazteagotan igeriketan eta, ondoren, bizikleta txapelketetan aritutakoa, hilabete batzuk beranduago iritsi zitzaion segan lehendabizikoz lehian aritzeko parada. «Maitzaren 21a zen eta ondo gogoratzen dut, nerbioak dantzan nituela, nora nindoan ere ondo ez nekiela», azaldu du. 35 metro koadroko eremu bat moztea zen lehiaren helburua eta uste baino emaitza hobearekin itzuli zen etxera, bigarren postua eskuratuta, «pozik».

«ETSITZEKO TENTAZIORIK GABE»

Emaitzak eta txapelak berehala hasi ziren iristen, baina une guztiak ez dira gozoak izan, Etxaburuaren esanetan. «Pasa den urtean inoiz baino gehiago entrenatu nintzen; banekien sasoiko nengoela eta asko prestatu nintzela, baina lehiaketa egunetan huts egiten nuen, batez ere, azkartasuneko probetan», oroitu du. Etsitzeko tentaziorik gabe, aurten, «sega gutxiago arituta», etorri zaizkio bueltan iaz egindako esfortzuaren fruituak. Gipuzkoako txapela Zizurkilen bertan jantzi zuen buruan, ingurukoak ondoan zituela, eta Euskal Herrikoa, berriz, Aian.

Ez dakit ondo nola azaldu segan zer sentitzen dudan. Niri segak jarraitzea eskatzen dit; kolpe bat eman eta hura ondo egin dudala ikusteak, bestea ematea eskatzen dit»

«Pasa den urtean inoiz baino gehiago entrenatu nintzen; banekien sasoiko nengoela eta asko prestatu nintzela, baina lehiaketa egunean huts egiten nuen»



Aurtengo Gipuzkoako txapelketan belarra mozten Igor Esnaola alboan duela.

Gorka RUBIO | ARGAZKI P

Gabirondoren laguntza ezinbestekoa izan duela errekonozitzen du: «Gaizki aritutako egunean, beti asmatu izan du lasaitzeko moduren bat, belarra ez zegoela ondo, sega kamustuta zegoela... norberaren kulpak zuritzeko aitzakiaren bat izaten du beti». Azken bi urteetan, ordea, Igor Esnaola segalariarekin batera ari da en-

trenatzen eta lehiatzen. «Gabirondoren bueltan jende asko geunden eta Igor ere txapelketetan dabilenez, eta belarra behar izaten duenez, harekin batera joaten naiz, segarako gutxi behar izaten dut eta», aipatu du txantxetan. Zentzu horretan ez dutela zailtasun handirik izaten nabarmendu du, baidute eta beti belardiren bat uzten dien Amasako lagun bat.

LAGUNTZAILEAREN GARRANTZIA

Arituaren arituaz, belarrari tankera hartzen ikasten ari dela dio, baina oraindik ere alboan zer eta nola egin behar duen esangodion pertsona bat ezinbestekoa zaiola uste du. «Behin, kazetari batek, elkarrizketa batean, belarra nola zegoen galdetu zidan eta niri burura etortzen zitzaidan erantzun bakarra 'berdea' zegoela zen», gogoratu du barrez.



Alatzne Etxaburua estima handitan duen sega eskuetan hartuta. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Laguntzailea izatea ezinbestekoa da, eta berak Esnaolaren animo hitzetan konfiantza osoa du. «Igorrek badaki zein modutan hitz egin behar dudan, presioa ez dut ondo hartzen, ez eta 'lasai, zurea izango da' esatea ere. Lasaitasun hitzak dira niri benetan laguntzen nautenak», azaldu du. Kiriak apaltzea da, hain zuzen ere, Etxaburuak txapelketan edo lehian duen eginkizun handienetako bat: «Ikasiko dudala esaten didate, baina ni oraindik ere gosalduta gabe joaten naiz probetara eta, maiz, aurreko egunean afaldu gabe ere bai», aitortu du.

Txapelak pilatu ditu bata bestearen atzetik segan –guztiak eskeintzen dizkio anaiari– eta arlo horretan bere buruari ikusten dion bidea oraindik ere luzea dela dio. Segarekin

nahikoa ez, ordea, eta aurtentrontzan eta harri tiraketan ere aritu da. «Trontzan egina nintzen aurretik ere, baina, egun batean, Jasone Aranburuk eta biok erdi txantxetan aipatu genuen aritzeko aukera», azaldu du. Gainerakoan bezala, pentsatu eta egin. Bide txarrik ez du egin bikoteak, Gipuzkoako txapelketan bigarren postua eta Euskal Herrikoan hirugarrena eskuratu baititu. «Gustura geratu gara egindakoarekin», azaldu du.

Harri tiraketan Ibarako taldean aritu da. Gustura dago, taldeko lana erakargarri zaio eta, baina desasbentailarik ere ikusten dio: «Ni, orain arte, bakarkako kirolean aritu naiz beti; entrenatzen badut, niretzat dira emaitzak, eta zelaira atera eta behar den bezala erantzuten ez badut, berriz, ni-

retzat nire lanaren ondorioak. Taldeko lanean nik egiten ez dudana besteek egin behar dute ezinbestean eta hori erantzukizun handia da», iritzi dio Etxaburuak.

Ez dago trantze horretan, «etxean duen laguntzari esker»; izan ere, datorren denboraldian ere hiru arloetan aritzeko asmoa du, hori bai, bakar bat au-

«Behin kazetari batek elkarrizketa batean belarra nola zegoen galdetu zidan eta niri etortzen zitzaidan erantzun bakarra 'berdea' zegoela esatea zen»

«Nerbioak kontrolatzen ikasiko dudala esaten didate, baina ni oraindik ere gosalduta gabe joaten naiz probetara eta, maiz, aurreko egunean afaldu gabe ere bai»

keratu behar balu, ez du zalan-tzarik, segarekin geratuko litza-teke. «Harrapatu egiten du norbera segak eta ni ondo harrapatu nau», aitortu du kirolariak.

Horregatik, hain zuzen ere, gustu handiz ikusten ditu Joxe Gabirondoren alboan segan egiten ikasten aritzen diren neska-mutilak. Zaila da kirol honetan jarraitzea, besteak beste, alboan beti norbait izatea, mozteko belarra lortzea edota segak zorrozten dakien pertsona baten laguntza lortzea oinarri oinarritzakoak direlako. Gustatuko litzaioke jarraipena duen kirola izatea, eta bide horretan eman dituen urratsak beste norbaiten eredu balira, bada, «primeran».

Maidar Eizmendi

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Errusia

2011. urtean Moskuk betiko udako ordutegia ezartzea erabaki zuen, urtero aldaketak egiten ez jardutearren. Lau urteren buruan, erabakiarekin atzera egin eta neguko ordutegira aldatzea erabaki dute, betiko berriz ere. Kanean askotariko iritziak daude, aldekoak eta kontrakoak. Baina badira erabakia enpresarien eta publizisten estrategia hutsa izan dela pentsatzen dutenak. Alegia, energia aurrezteaz eta argi ordu gehiago lortzeaz hitz egiten duten arren, benetako interesak bestelakoak direla, kontsumoari loturikoak batez ere. Herritarrei ere galde-tu diete, eta berdindu samar daude aldekoak eta kontrakoak.

> Púnica

Guardia Zibilak 51 lagun atxilotu zituen joan den astelehenean ustelkeria auziekin lotura zutelakoan. Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta jarri zuten Púnica operazioa martxan eta Madril, Murtzia, Leon eta Valentziako agintari, funtzionario eta enpresaburuak atxilotu zituzten. Herri lanen esleipenak modu bidegabean sortzeko sare bat osatzea egotzi diete. Ustelkeria sareak 250 milioi euroko kontratuak esleitu ditu azken bi urteetan Madrilen, Valentzian eta Leonen, eta kargudun publikoak eurak aberastea zuen helburu. Inputatuak lau alderdi politikotakoak dira: PP, PSOE, IU eta UDMA.

> Pailazoak

Pailazoz mozorrotutako hainbat pertsona, armak eskuan, kalera ateratzen ari dira Estatu frantseseko hainbat herritan. Halloween festari ala “American Horror Story” beldurrezko telesailaren denboraldi berriaren estreinaldiari egozten diote gazteen artean zabaldu den moda hau. Dena dela, gazte bati dagoeneko sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote, eta Agde herrian 14 nerabe atxilotu zituzten joan den larunbatean, pailazoz mozorrotuta egoteagatik. Montpellier hirian, pailazoz mozorratutako batek gizonezko bati eraso dio burdinazko barribat erabiliz, 30 aldiz kolpatu du gizona.

> Eguzki ekaitza

Joan den igandean, AR 12192 eguzki orbanak azken 24 urteetako erupziorik handiena eragin zuen eta aste osoan zehar sekulako sugarrak ikusi ahal izan dira eguzki inguruan. Hiru egun geroago, NASaren behatokiak eguzki zikloko seiugar handienetakoa jaso zuen. Hamaika urtetik behin gertatzen omen den aldakuntza da hori. Egun hartako sugarraren tamaina Jupiter planetarekin alderatzeko adinakoa da, C. Alex Young astrofisikoaren arabera. Eguzki orbanak alde magnetiko aldakorrak dira, eta inguruan duten eguzki materiala baina hotzagoa denez, itxura ilunagoa izaten dute.



KUTXATEKA.COM

ESAN BEHARREKOAK

Paratu naiz, urtero bezala, zure aurrean. Doretore jarri zaitugu, badaezpada, jendeak zer esango. Gauza mordo esan dizut, barruraka, zuk eta nik bakarrik entzuteko moduan. Gauza mordo nuen kontatzeko, ez zaudenetik gertatutakoak batzuk, zeundenean esan gabekoak asko. Iruditu zait hotza dela tokatu zaizun txoko hau, umela. Beti izan zara hozbera, gainera. Zure jertse lodiak etxean dauzkat oraindik, zure usainaz. Hurrengoan ez dut hainbeste gauza utziko esan gabe, joan aurretik esan behar nizkizun. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria



Nomofobia zara?

Gero eta gehiago entzuten da nomofobia hitza, gaitza. Ingeleseko “no-mobile-phone phobia”-ren laburdura da eta kalera mugikor gabe ateratzeko beldur irrazionalari egiten dio erreferentzia. Hau da, kobertura edo bateria falta dugunean, mugikorra etxean ahaztu edota ondo funtzionatzen ez duenean sentitzen dugun antsietatea da nomofobia. Ikerketek diotenez, jendartearen gehiengoak sufritzen du gaitz edo patologia hau, 18 eta 24 urteko gaztetxoaren artean are zabaldago dagoela.

Nomofobia zara? Arazo psikologiko hau hautemateko hainbat sintoma identifikatu dira: antsietatea, egonezin orokorra, pentsamendu obsesiboak, eta abar. Horrexegatik, hain zuzen, eskola porrota, laneko eraginkortasun eza eta bikoteak banantzea dira ondoriorik arruntenak. Kontrara, nomofobia konpainian sentitzen da mugikorrarekin dagoenean. Mugikorrarekin badago, ez dago bakarrik. Eta hain sentitzen da babestua eta lagundua, eta hainbeste buru-denbora eskaintzen dio mugikorrari, non oinarritzkoak diren beste gauza batzuetara lotzeko denbora modu drastikoan murrizten baitzaio; norbere buruarekin konektatzeko, esaterako.

Hainbat eta hainbat ikerketa egin dira nomofobiaren gainean. Gero eta gehiago, eta hazten jarraituko du oraingoz. Estatu Espainiarreko Antsietate Trastornoetan Espezializatutako Ikerketa Zentroak (CEETA) dioenez, mugikorraren erabiltzaileen %53k pairatzen du nolabaiteko antsietate bat, modu inkontzientean bada ere, mugikorra galdu, ahaztu, bateria bukatu edota kobertura gabe geratu bada. Era berean, batezbestean, egunean 34 aldiz begiratzeko omen dugu gure mugikorra. 2013an egindako beste ikerketa baten arabera, 1980 eta 1990eko hamarkadetan jaiotakoen %44k antsietatea sentitzen du.

California State Universityren azterketa bat egin zuen mugikorra kendu, mugikorra isilarazi eta mugikorra neurrian erabiltzen duten erabiltzaileen ar-

tean ematen diren antsietate maila ezberdinak aztertzeke asmoz. Deigarria da emaitza. Diotenez, antsietatea hiru segmentu ezberdinetan aldi berean sortzen dela egiaztatu zuten. Ondoren, neurrian erabiltzen dutenek ez dute igoera nabarmenik. Mugikorra kendu edo isilarazteko eskatu zitzaienten kasuan, antsietateak, poliki bada ere, hazten jarraitu zuen.

Kezkagarriak dira datuak. Eta nabaria da teknologia berriekiko dugun menpekotasunak maila pertsonal eta sozialean konplikazioak sortzen dituela. Adituek gomendio orokor batzuk ematen dituzte: menpekotasunaren kontzientzia hartzea, mugikorraren erabilera kontrolatzen ikastea eta, horretarako, modu gradualean mugikorratik askatzea, mugikor gabeko tartearik sortuz, tarteka isilaraziz edota itzaliz; mugikor gabeko une batzuk sortuz eta biziz, alegia.

Gaztetxoei dagokienez, adituek gurasoei egiten diete dei. Beste eremu batzuetan gertatzen den gisan, gurasoak eredugarri izan behar du. Bazkaltzen edo afaltzen gaudenean edo elkarrekin denbora igarotzeko tartea dagoenean, mugikorra ez erabiltzea gomendatzen da, gaztetxoek ez dezaten ohitura hori hartu, modu naturalean, bere gurasoek hala jokatzeko dutelako.

Carlos Scolari, Universitat Pompeu Fabra irakaslea dioenez, «komunikazioaren teknologia guztiak kognitiboak dira eta, hortaz, munduarekiko gure pertzepzioa transformatzeko gaitasuna dute». Garrantzitsua da menpekotasun eta fobia berri hauen kontzientzia hartzea, eta mugak jartzea modu naturalean ateratzen zaizkigun menpeko jarrera horiei. Lehentasunak eta ordutegiak ezarri. Non eta norekin zauden zainduz. Eta bakarkako uneak mantenduz, guztiz bakarrik egotea mugikorrari gabe egotea dela sinetsita. •



Bakarrik gaudenean maiz erabiltzen dugu mugikorra konpainia gisa. GAUR8

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

